

**JOAN PEREZ LAZARRAGA (1550-1605)**  
**IDAZLEAREN IV. MENDEURRENA:**  
**1605-2005**

*Barrundia haraneko Udaletxea, 2005-V-28*



EUSKALTZAININDIA

例句：在被问及对日本的评价时，李女士说：“日本是一个文明古国，人民素质高，对人很友好。”



Andres Urrutia Badiola euskaltzainburua eta José Félix Uriarte Uriarte Barnundiako alkateak atsegin handiz gongidatzenten zaituzte, Joan Pérez Lazarragaren IV. Mendeurrenra dela eta, 2005eko maiatzaren 28an, eguerdiko 12:30etan, Barrundiako Udaletxean, Ozeta herrian (Araba) egingo den ekitaldira. Hosa hemen egitaraua:

- Barrundiako Alkatearen ongietorria.
  - Euskaltzainburuaren hitzak.
  - Juan Vidal-Abarea, Historiaren Erret Akademiako kidea: "La familia Lazarraga en la Llanada Alavesa".
  - Xabier Kintana, idazkaria: "Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak".
  - Henrike Knörr, Iker sailburua: "Joan Pérez de Lazarragaren genealogía-izkribuak: zenbait ohar".
  - Larreako Alkatearen hitzak.

Ondoren, Lazarragaren opereezko plaka jarriko da Larrean.

Erau zutca eskluzioen da: 94-415-81-55

300

D. Andres Urrutia Badiola, presidente de Euskaltzaindia y D. José Felix Uriarte Uriarte, alcalde de Barrundia tienen el honor de invitar a Vd. a la sesión pública que, con motivo del IV Centenario de la muerte de Joan Perez de Lazarraga, se celebrará el sábado 28 de mayo de 2005, a las 12.30 del mediodía, en el Ayuntamiento de Barrundia, en la localidad de Oraeta (Álava), según el siguiente programa:

- Bienvenida del Sr. Alcalde de Barrundia.
  - Palabras del Presidente de Euskaltzaindia.
  - D. Juan Vidal-Abarca, miembro correspondiente de la Real Academia de la Historia:  
“La familia Lazarraga en la Llanada Alavesa”
  - D. Xabier Kintana, secretario de Euskaltzaindia: “Buenas nuevas del viejo y joven poeta Lazarraga”
  - D. Henrike Knörr, director de la Sección de Investigación de Euskaltzaindia:  
“Observaciones sobre la genealogía escrita por Juan Pérez de Lazarraga”.
  - Palabras del Sr. Alcalde de Larrea.

A continuación se descubrirá, en Larrea, una lápida conmemorativa del escritor

Se ruega contestación: 94 415 81 55

## **JOAN PEREZ LAZARRAGAREN IV. MENDEURRENA**

*Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua*

Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Barrundia /  
Barrundiako Alkate jauna,  
Excelentísimo Sr. Diputado Foral de Cultura de Álava /  
Arabako Foru Aldundiaren Kultura diputatua,  
Sr. Presidente Junta Administrativa de Larrea,  
Autoridades / Agintariok,  
Jaun-andreok / Señoras y señores,

Como Presidente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, quiero en primer lugar agradecer al alcalde y al pueblo del Ayuntamiento de Barrundia por la acogida que nos da a la hora de celebrar, como colofón de las Jornadas de reflexión interna que hemos realizado estos dos últimos días en Argomaniz, este acto de homenaje a Joan Perez Lazarraga, natural de Larrea y autor en lengua vasca, conocido a través del reciente descubrimiento y publicación de sus textos.

Textos que, justo es decirlo, han dormido un sueño de siglos hasta su localización y publicación. Lo mismo podrá decirse seguramente de otros que aun no siendo hoy del dominio público, puedan resultar de importancia capital para la lengua vasca y en los que nuestra Academia, huelga decirlo, tiene un gran interés.

\* \* \*

Euskaltzaindiak omenezko ekitaldi hau antolatu du, bertoko Udalarekin batera, uste baitu Joan Perez Lazarragaren merezimenduak zinez harrigarriak direla. Hartara, haren bidez jakin dugu euskaldunok Araban ere badugula gure Errenazimendu garaiko idazle ezagunen parekoa; orobat, euskara bera idatziziko moldeetan ez zela batere arrotz Euskal Herriko jende ikasien artean. Gaur aztertuko dira, hona bildu diren zenbait adituren iritziz, haren euskal ezaugarriak: zer-nolakoak zituen idatzankera eta gaiak; nongoak jatorria eta senideak.

Hitz batez esateko, euskararen aitaponteko dugu Arabako herrialdean Joan Perez Lazarraga. Harena ohoratzea eta aztertzea dugu orain eginkizun. Horra Euskaltzaindiaren ekarria, gaur zuen aurrean ageiraraziko duena.

Mila esker.

## **LA FAMILIA LAZÁRRAGA EN LA LLANADA ALAVESA**

*Joan Vidal-Abarca,  
Historiaren Erret Akademiako kidea /  
Miembro de la Real Academia de la Historia*

Los Lazárraga constituyen la típica familia vasca que alcanzó su máximo esplendor con los Reyes Católicos, no llegando sino a rozar los estamentos más importantes de la época, iglesia, milicia y administración, en una época en la que otras familias llegaron a lo más alto de la escala social, consolidando su posición con títulos nobiliarios.

Originarios de Oñate, los Lazárraga fueron hombres de confianza de los Guevara, condes de Oñate, y por esta razón pasaron a Álava, a la zona de la Llanada oriental, donde tenían la casa solar y el castillo de Guevara, y otros bienes y preeminencias.

El primer Lazárraga que pasó a Álava, Pedro Pérez de Lazárraga, ayo de D. Pedro y D. Iñigo Guevara durante su minoría de edad junto con su madre D<sup>a</sup> Constanza de Ayala. Por ello fue nombrado alcalde mayor y gobernador de la casa y estados de Guevara. Vivió a mediados del siglo XV, y fue él quien hizo las casas principales en la Plaza de San Miguel de Oñate en 1433, en terrenos que le había dado la propia condesa de Oñate. Fue él quién compró y reedificó las torres de Larrea en 1439 y también el palacio quitapechos. También fundó la capilla de San Francisco y Santo Domingo en San Miguel de Oñate y otra en San Millán de Larrea, en la que fundó una capellanía de misa diaria, junto con su mujer Teresa Gómez de Berganzo.

Tuvo de su matrimonio con Teresa Gómez de Berganzo siete hijos, tres de ellos llamados Juan: Juan Pérez, Juan López y Juan Ibáñez.

Juan Pérez se estableció en Larrínzar.

Juan López heredó una de las torres de Larrea, y acabó avecindado en Zalduendo al heredar el palacio de Lecea Lazárraga.

Juan Ibáñez permaneció en Oñate.

Otros hijos fueron Pedro López, padre del sin duda más importante personaje de la familia, que fue Juan López de Lazárraga, contador de los Reyes

Católicos, y testamentario de la Reina Isabel que no tuvo sucesión y fundó el convento de la Santísima Trinidad de Vidaurreta de Oñate, cuyo patronato estuvo siempre en la familia.

Otro hijo fue Gómez Pérez, que continuó como su padre siendo el hombre de confianza de los condes de Oñate, por lo que vivió inicialmente en Ameyugo y después en Larrea, bisabuelo de nuestro Juan Pérez de Lazárraga a quien hoy homenajeamos.

Otro hijo fue Iñigo abad de Lazárraga, que fue sacerdote, párroco de San Miguel de Oñate.

La única hija fue María Pérez de Lazárraga, que casó Rodrigo Ochoa de Amézaga y Lecea, y ambos hicieron el palacio de Lecea Lazárraga de Zalduendo, que por matrimonio pasó a la rama del citado Juan López que por eso se estableció en Zalduendo.

Todos tuvieron abundante descendencia, que se propagó por toda la llamada, y hubo Lazárragas en muchos pueblos, e incluso en Vitoria y especialmente en Salvatierra.

Como no podía ser menos, aparecen a mediados del siglo XVI otros Lazárraga en Larrea y en Heredia, imposibles de entroncar con la familia troncal, y que estaría originada en hijos naturales o bastardos de miembros de la misma. El caso es que varias ramas de estos Lazárragas se han mantenido hasta la actualidad, y son ellas las que han conseguido que se mantenga el apellido y no se extinga, como ocurrió con todas las ramas de la familia troncal, que tuvieron finales y destinos muy dispares.

Concretamente la rama de Larrea, acabó en una familia apellidada Díaz de Arcaya, oriunda de Matauco, que se estableció en Venezuela, en la ciudad de Coro, y fueron sus miembros los que heredaron una de las torres y el palacio quitapechos, y los vendieron allá en el siglo XIX.

Afortunadamente, la presencia de esta familia en diferentes lugares ha quedado constatada por la existencia de escudos de armas que aparecen en diferentes edificaciones casas, capillas, palacios, etc, aunque debemos ser muy cautos a la hora de identificar las armas de los Lazárragas, que consisten en:

*un ciervo con la cabeza vuelta hacia atrás que es atacado por un águila que le pica en el lomo, todo sobre un trigal rodeado por un seto.*

Aunque puedan parecer unas armas muy peculiares, son también las armas del propio Ayuntamiento de Oñate, y las de varias familias oriundas de esta villa, así tenemos a los Garibay, muy extendidos por la Llanada, con armas en Margarita, a los Olazarán, con armas en Abechuco, los Zuricaray, con armas en la iglesia de San Miguel de Vitoria, que nada tienen que ver con los Lazárraga.

Así mismo, tenemos otras familias apellidadas Lazárraga, en otros lugares, como Orduña, o la Rioja, donde también dejaron huella de sus peculiares armas pero que resultan muy difíciles de entroncar.

Resulta curioso que la rama de Larrea, cuyos miembros hacían ostentación de ser dueños de la torre de Larrea, no dejaron la impronta de su escudo de armas, ni en las torres, ni en el palacio quitapechos.

Sirva esto de homenaje a ese chico de unos 17 años, que estando en Madrid en casa de su tío Juan López de Lazárraga, oficial mayor del secretario Eraso, dueño del mayoralgo de Oñate, pasaba sus ratos de ocio escribiendo ese manuscrito que ha sido descubierto recientemente.

Heredó la torre de Larrea de un tío suyo que no tuvo sucesión, y se fue a vivir a Larrea donde permaneció hasta el resto de sus días, dedicado a la administración de sus bienes. No obstante, su vocación de escritor le impulsó a escribir la genealogía de su familia, aunque más bien se trató de ampliar otro manuscrito genealógico que había escrito otro pariente. Este manuscrito genealógico también ha llegado a nuestros días en varias copias, una de las cuales se ha mantenido en el archivo de la familia Velasco, marqueses del Fresno, por haber casado una hija de nuestro Juan Pérez con Juan de Velasco, cabeza de esta familia, que tenía su palacio en Galarreta.

Seguramente escribió mas cosas pero, como he dicho, la pista de sus descendientes acaba en Venezuela a principios del XIX, por lo que resulta extremadamente difícil. Quizá algún día aparezca algo.

## **LAZARRAGA POETA ZAHAR GAZTEAREN BERRI ONAK**

*Xabier Kintana Urtiaga*

Señoras y señores, académicos y amigos que habéis venido en este día al homenaje del primer poeta vasco y alavés conocido al sur de los Pirineos, deseo expresaros mis saludos más cordiales a todos, así como mi gratitud por vuestra asistencia.

Para mí constituye un inmenso honor poder dirigiros estas palabras en esta hermosa zona de la Barrundia, la misma que, en vida, Joan Perez de Lazarraga contempló con sus ojos y admiró su por belleza, recorriéndola a pie y a caballo, habida cuenta su noble condición. En cualquier caso, se trata de homenajear a un hijo de esta tierra alavesa que, gracias al gran amor hacia los suyos y a su lengua, ha pasado ya a ocupar un destacado lugar en la Historia de la Literatura Vasca

Muchos de vosotros no habláis ya la lengua en la que vuestro paisano Joan Perez escribió sus versos, por eso vuestra presencia aquí es aún más de agradecer, pues muestra a las claras un interés, un amor y una consideración hacia el euskera como algo propio, como parte de un patrimonio arrebatado por las circunstancias socio-políticas que ahora todos tratáis de recuperar con vuestro esfuerzo, tanto personalmente como en vuestros hijos, nuevos depositarios de la riqueza lingüística de nuestros mayores.

Aunque mi ponencia va a ser en euskara, el idioma de Joan Perez, os la resumiré diciendo que en ella trataré de demostrar que este ilustre alavés, primer poeta vasco de la Vasconia peninsular, no fue un escritor solitario ni cerrado en sí mismo, sino que en él confluyeron diversas fuentes, populares las unas y librescas las otras, entre las que muy posiblemente se encontraba la del bajo navarro Bernard Etxepare, cuya obra, a mi entender, había leído y asimilado nuestro joven Lazarraga. Y digo joven porque, al parecer, su obra, al menos en parte, la compuso cuando aún no había cumplido los 20 años. Para mostrar esas influencias, citaré algunos textos y pasajes de ambos poetas, en los que pueden verse unas coincidencias más que casuales.

En la segunda parte de mi exposición, hablaré de los tratamientos que aparecen en la obra de Lazarraga, es decir, sobre la forma de tutearse y de tra-

tarse con mayor respeto en el euskera de su tiempo en esta comarca, y de las consecuencias prácticas que podemos sacar de ello en la actualidad a la hora de abordar algún problema que presenta la enseñanza y uso de la lengua en este terreno. Eskerrik asko.

\* \* \*

Arabako eta Hego Euskal Herri osoko lehen poeta ezagun honen omenaldira eterri zaren jaun andre guztioi, agur eta eskerrik asko gurekin ego-teagatik.

Ohore paregabea dut, non eta hemen, Barrundiko eskualde zoragarri honetan, bizi zelarik Joan Perez Lazarragakoak bere begiekin ikusi, goraiaputu eta bere oinekin eta –noblea zela kontuan izanda–, agian zaldi gainean zapaldu zituen toki ederrotan, haren gomutaz, jada Euskal Literaturaren historian betiko eta ahantzezinik geldituko zaigunaz, hitz batzuk esatea.

Bibliak aspaldian esan zigunez, profetak ez dira eskuarki ongi hartuak izaten beren herrian. Gaur hemen Ozaeten dakusagunak, ordea, esaera zaharrak inoiz edo behin okertzen direla erakusten digu. Izan ere, herritar askotxo eterri zarete gaur Barrundiko seme ospetsu honen omenaldira, eta horrek garbi frogatzen du gure arabar herkide hori, duela lauren urte alde egin bazigun ere, oraindik bizirik dagoela guzti gogo-bihotzetan. Bere seme-alaba gogo-angariak ohoratzen dituen herriak aldi berean bere burua ohoratzen omen du, eta beraz, Lazarragaren omenaldi hau haren eta guzti ohorerako ere bada, Euskal Herriak bere haurrak ez dituela ahanzten erakusten du eta.

Nik bezain ongi dakizunet, Joan Perez Lazarragaren eskuistik oraintsu ustekbean euskaraz heldu zaizkigun ehun orrialde mamitsu horietan altxor ugari eta askotarikoak gordetzen dira, bai literatura aldetik eta bai hizkuntza aldetik ere (1). Ustekeria hutsa litzateke, beraz, saio labur batean aberastasun

(1) Lexiko aldetik, garai hartako erdarakada askorekin batera, obra honek badauzka orain arte beste inon aurkitu ez diren hitz ezezagun eta bitxi asko ere, arretaz bildu eta azterteko hapaxak. Inoiz, gainera, geroagoko idazle eta euskalariek aurreikusiriko forma harrigarriak ere era-kusten dizkigu, horien susmoak egiaztatuz. Hor dago, esaterako, Olabide jesuita arabarrak bere *Itun Berria*-ren pasarte famatu bat itzultzeko erabili zuen *bentzu* «*entzun beza*» adizkera ospetsua (*Entzuteko belarridunak bentzu* Mat 13, 43), garaikide guztiak berak lehenbiziko aldiriz asmatutaz jotzen zutena, orain Larrekoaren poema batean berretsesia: *bentzu munduakene deadarra 1185 v.* Gauza bera gertatzten da Rudolf de Rijk-en bilatzen zituen lehen eta bigarren pertsonako pasiboa-en kasuan ere, honako hau: *Ama libreaagan jaio ninçan / dicharic ez nebenau alabea / dirurreren saldu ninçan esclabea* 1181 v. eder hau lekuko, edota autore berberak bere «*Nunc*» *vasconice* artikulu bikainean proposatzen zuen *biharretziak* forma ere, beraren ustez «sería aceptable en estilo poético» gisa iragarria, eta Lazarragak ahalaxe ekarría: *biarreçiac urrean dato* 1172 r. Holandar hizkuntzalarri handiak poz berretua zukeen *oraindo* (1196 v) eta *oraingaño* (1196 r) adizlagunak gure autore honen obran ere aurkitzen direla jakin balu. Halere, inoiz, irakurketa las-terriegia ezustekoren bat ere ekar diezagukete. Esaterako, norbaitek transkribatu duen «*Bataz esango neuque doloreac / bacochic nembilela yllunetan / dulçero rituala biderquetan / çugana quexaac eta clamoreac / arrtu nenguianean coloreac / çure amorearren penaçeco...*» 1193 r

horiek guziok jorratu eta bildu nahi izatea. Hortaz, neure gaurko lantxo honetan bi puntu xume ukituko ditut, besterik ez, gaurko ekitaldirako, horiek aski eta sobera direlakoan. Larrea dorreko jaunak utziriko harrobi emankorri, bezalako gainetiko urratu txikia egingo diot, barruan dauzkan mea sakonagoak erauzten saiatu gabe.

## ITURRIEN ARAZOA

Eskuratu dugun koadernoa, anitz orrialdetan idatzia eta berridatzia ageri delako, lehen soaldian palipsesto nahasi xamarrar irudi dakiguken arren, edozein irakurle ohartu berehalako kontura daiteke obra hori, hizkuntzaz eta idazkeraz aski landua dela. Maiz txistukarien ondoan agertzen diren gortzeak eta sandhi kasuren batzuk kenduta, guztiak hizkuntza mintzatuan aspaldian finkatuak (*aberaspategaz, çuzprioxe garrazpi ‘zuzpiriotxo garrazt bi’, ezta faltaco, ezpadaguie, eztau, eztot eguingo faltaric, orrela gura doçunazquero, eztacust, nic ichico eçteuçut, ylteninçan ‘hiltzen nintzen’, oy nitaucuatat ‘nik daukat’, nipere ‘nik bere’, bapere ‘bat bere’, ...*) eskuarki hitzen forma kanonikoak oso ondo gordetzen ditu, horiek berba egitean izaten dituzten aldaera fonetikoak bazterturik (*ez çabilç, ez dot entendimenturic, ez doçu errazooric...*), txistukarien ondoan leherkari hostunak hoskabetzen direlako fenomenoaz konturatuta, inoiz superzuzenketa ere egiteraino heldurik, *gusdo* (1148 r), *cortesdo* (1170v) edo *gente noblez da* (=»eta») *lenguageaz* (1169 v) bezalako grafiak, itxura osoz faltsuak, eskainiz.

Bestetik, oso ardura handiz transkribatzen ditu bokal luzeak (*erdeeraazzo, çaaar, içaaatea, cateea, beera...*) eta igurzkariak eta afrikatuak grafiaz berizten ez dituen arren, ondo kontuan izaten zituen horien artikulazio-puntuak. gaurko z eta tz beti ç (inoiz c) edo z (*çer, doçu, eçin, eçer, deustaçu, gauça, yçan, çara, çaoz, abuztu, ez, leguez, laztana / çeinçuc, oçitu, erioçea, bioça...*), eta oraingo s eta ts-rako beti s (inoiz ß: *ygaro ninçan baßoti*, 1170 v) edo ss utzirik (*esan, asco, beste, osoric, solas, eusquel erria / aseguin, esea, losa, asecaba, ychi neusan, ysaso, diracasudan...*). Sabaikariak, aldiz beti x eta ch (*nax, gox, gaxto, dozenaxe, baxe, exilic, congoxadu, choria, güchi, anchinaco, ychi...*). Horrek guztiorrek, bistan denez, aurretik, hizkuntzaren inguruko gogoeta sakona eskatzen du. Bainha gogoeta hori latinaren edota jadanik izkribu-tradizio luzea zeukanen beste erdaren kasuan idazten ikastean bertan egiten bazen, zailagoa dirudi, orain arte uste genuenaren arabera, eskuarki idazten ez zen hizkuntza batean, hots, gurean bat-batean eta norbere kautatik egitea.

---

horretan ez dirudi lehenbiziko aldiz Larramendiren hiztegian agertu eta gaur, euskal irakaskuntzari esker guziok ezagutzen dugun *bideretu* aditza ageri zaigunik, Lazarragak iraganetik gugana jauzi harrigarri egin balu bezala, *bidalquetan* (< *bidaldo*) baizik.

Eta euskaraz ia deus idazten ez zelako iritzia, ez da soilki, ondoko men-deetakok izan dugun informazio txar edo eskasaren ondorioa izan. Aski dugu, adibidez, Etxeparerentzako liburuaren aitzinsolasa gogoratzea, hark ere, bere garaian gauza bera uste zuela konturatzen: *ceren bascoac baitira abil animos eta gentil eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan letratu handiric miraz nago iauna nola batere ezten assaiatu bere lengoage propriaren fauoren tan heuscaraz cerbait obra eguitera eta scributan imeitera ceren ladin publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scribatzeco hon dela.* Urte batzuk geroago, 1571an, Joanes Leizarraga protestanteak antzeko zerbaitek ziotzen bere Testamendu Berriaren hitzaurrean Joana Albret erreginari: *nic scributu dudan lengoage motá baita, sterilenetaric eta diuersenetaric: eta oraino, translationetan behinçat, vsatu gabea.*

Ildo berean eta oraintsu arte, luzaroegi pentsatu da, gure lehen idazle gehienak elizgizonak izan zirela, euskarak predikazioan mantentzen zuen egoera ofiziosoagatik horiek baitziren euskaraz trebeenak. Izan ere, Julio Urkixok *Los Refranes vascos de Sauguis-en* hitzaurrean (2) 1596.eko *Refranes y Sentencias* bildumako 273. esaera zaharraz, *Gaçean, gaçean, ta ez Ybarguengorean* ‘De la sal, de la sal pero no de la de Ybarguen’ delakoaz, emandako azalpenaren haritik, uste genuen Herriko handikiek, behekoekin mintzatzeko euskaraz nahitaez jakin behar izan arren, beren artean eskuarki erdaraz hitz egiten zutela, eta Etxeparerentzako mezenas izandako Bernard Lehete edo Andres Poza, Esteban Garibai eta Baltasar Etxabe moduko apologeta laikoak edo Arnaud Oihenart historialaria, izan, erregela orokor hori berresten zuten salbuespenak besterik ez zirela.

Egia da Mitxelenak berak inoiz, zeharka bederen, antzinako euskal literatura idatziaren ustezko tradizio sekulararen susmoa egin zuela Ibargüen-Cachopinen kronikan agertzen diren bertsoak bestelako grafiaz letraldatuak zirela ohartaraztean, egileak iturri zaharragoren batetik kopiatuak balitu bezala (3). Baino edonola ere, Joan Perez Lazarragakoaren obra honek erabat bestelakatu du garai hartako sekularrez euskara kontuan genuen iritzia. Horregatik, agian arreta handiagoz irakurri beharko genituzke Rafael Mikoleta

(2) Honela argitzen du Urkixok esaera hori jatorriz erdaraz esan behar izan zela, Lope García de Salazarren *Las Bienandanzas e Fortunas-en* 22. liburuko pasarte hau erantsiz: «En el año del Señor de 1330 años, convidaron los Escuderos de Ibarguen a comer a Juan Roys Zaldívar, hijo de Ruy Sánchez de Zaldivar, con quince omes, en la Torre de Ibargoen. E cuando se sentaron a comer, pidieron Sal, sal, e salieron de una camara cincuenta omes que yasian escondidos, e mataron al dicho Juan Roys de Zaldivar, e a todos los quince omes. E quedo por refrán , que cuando uno pide sal, que disen, no sea lo (sic) de Ibargoen».

En el mismo lugar indiqué también, que, a mi juicio, el refrán citado debió decirse primero en castellano y traducirse luego al vascuence: pues la doble significación de la palabra sal permite en la primera de estas lenguas un equívoco –o como dirían los franceses, un *calembour*– imposible de traducir a la segunda. Julio de URQUIJO e IBARRA: *Refranero Vasco. Los Refranes y Sentencias de 1596.* Tomo II, Colección Auñamendi, Donostia, 1967.75-76. orr.

bilbotarrak bere *Modo Breve de aprender la lengua vizcayna*-ren bertsoginta atalean dioskuzan berbak, bere garaian omen ziren euskaldun poeten garrantzia gutxietsi gabe (4).

Ez dugu ahantzi behar, gainera, berberak aitortzen digunez, guregana heldu diren lanak idatzi zituenean, Joan Perezek ez zituela oraindik hogei urte (*erruqui nauçu neure aideac / çegaiti nax ni gaztea / oy orainganno ez nax ni eldu / oy bada oguei urteam... 1196 r*) eta datu horrek, bere bakarrean ere, aski izan beharko luke idazle honez zenbait galdera eragiteko. Lehenengo eta behin, non eta nola ikasi zuen euskaraz idazten? Eta bigarrenik, nolako ereduak izan zituen kontuan bere lehen idazlanok moldatzeko orduan?

Gauza jakina da irakurtzea eta idaztea ez direla jarduera teorikoak, erabat praktiko eta aplikatuak baizik. Jendeak holako edo halako hizkuntza konkretuaren gaineanz ikasten du irakurtzen eta idazten, ama-hizkuntzaz izkiriatzeko, eskuarki, Euskal Herrian hori oraintsu arte hain ohikoa izan ez bada ere. Behin hizkuntza batean irakurtzen eta idazten ikasi eta gero, ez da hortik segitzen mintzaira horretan ikasirikoa, besterik gabe, besteetara ere automatikoki projekta daitekeela, batez ere bi hizkuntza horien egiturak oso ezberdinak direnean. Ondorioz, gure artean oraindik sarritan ikusten dugunez, litekeena da pertsona bat hizkuntza arrotz batean alfabetaturik egotea baina berean bi lerro idatzi edota irakurtzeko gai ez izatea. Idazteko eta irakurtzeko zaletasuna, gainera, eskola bidez ongienik menderatu den hizkuntzan izaten dugu guztiok, eta areago hizkuntza hori literatura jori eta atseginaz ongi hornitua baldin bada.

Hemendik atera nahi dudana, zuetariko askok jadanik susmatzen duzuenez, hauxe da: aztertu beharreko kontua litzatekeela Lazarraga gazteari nork irakatsi zion euskaraz irakurtzen eta idazten, eta irakurtzeko ere, zer nolako testuak –eskuizkribuak noski– erabili zituen. Galdera egiten dut, denboraz eta jakituriaz ni baino hornituagoei erronka eginez, ea horren erantzunak noizbait argitzen gaituen. Edonola ere, gogora dezagun XVI-XVII. mendeetan ospe handiko euskaldun eskribauak izan genituela, bai eta Joan Itziarkoa bezalako kaligrafo bikainak ere.

---

(3) Conviene también anteponer al comentario alguna observación sobre el estado del texto en un sentido general. Se diría que quien incluyó los cantares en el ms. los copió de alguna fuente escrita anterior, guardando al menos en buena parte la grafía antigua. ç, p. ej. es letra frecuente en los cantares, pero falta en el relato del sangriento suceso que constituye el cuerpo de esas páginas. Luis MICHELENA, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid, 1964, 84 or.

(4) *Tambien algunos modernos del Parnaso Cantabrico han escritodezimas, lyras y sonetos en vasquenze, con los mismos acçentos y consonantes que suelen tener en romanç, pero es obra de poco luçimiento, por los pocos en en vasquenze entienden este metro.* Zorixarrez Parnaso horretako kideen izenak eta lanak ez zaizkigu heldu. Halere, talde horretan sartu beharko litzateke, ionon kokatzekotan, 1688ean idatzi ziren Bertso bizkaitarren egilea ere. Iku Joseba Andoni LAKARRA, «Bertso Bizkaitarrak», *Separata del Anuario del Seminario de Filología Vasca* «Julio de Urquijo» XVIII – 2, 1984.

Joan Perezen gurasoak haren hezkuntzaz arduratu baziren, gazteak lehenbiziko pausoak etxearen bertan egindo zituen segur aski, senide letraturen batekin edo agian apaizen batekin. Bere familiaren genealogian Lazarragak bere inguruko eskribau batzuen izenak aipatzen ditu: Juan Ruiz de Larrea, egindako faltsukeria bategatik galeretara kondenatua, eta Bautista de Larrea «que llaman el papudo, escribano en Argomaniz» (5), garaikideak biak, eta beharbada, gaztearen hezkuntzaz ardura izandakoak. Bere senide, auzokide eta zirikatzale Esteban de Garibairen antzera, oso litekeena da goi ikasketak Ofiatico Sancti Spiritus unibertsitatean egitea, eta agian hortik heldu zen euskal-tzale bion elkar ezagutzea (6). Bere jatorrizko euskaraz gainera, hezkuntzaz gaztelania eta latina ere bazekizkien, garai hartan handiki batengan espero iza-tekoa zenez, eta bere erdarazko poemaren artean badu bat zeinetan Ciceronen mintzairan aldizka lerro batzuk ezartzen dituen, ortografia gehiegi zaintzeke, egia esan: *tentaciones graviores....quibus yn bita rresisto....me parentes tradi-derunt...que ni pro nunmis bendiderunt....ynterr çeteros dolores/ me magis bul-neraberunt....imanus pedes clavaberunt 1170 r.*

Irakurgaitzat erabili zein erabili ez, kontua da herri-koplak behintzat bi-ziki maite zituela Joan gazteak, eta era horretako bertsoak maiz tartekatzen di-tuela bere poemaren artean. Bereziki aipatzeko iruditzen zait lehenbiziko le-roetan naturatik irudiak hartzeko joera (*Haltzak ez dū bihotzik / ez gaztanberak heziirrik gisa*) hurrengo lerroetan giza gertaera batekin konpara-tzeko (*ez nian uste erraiten ziela / aitonen semek geziirrik*). Horrela, arabar-rraren eskuizkribuan *Urtan eder arria / aen gañean chorria. / Amorantian le-quidanari / atera neio beguiac* koplatxo hau irakurtzen dugu (1165r), lehen zatia Orixeren *Euskaldunak* poeman ere, pixka bat aldaturik, aipatua, herri-po-esiaren klixet moduan (7). Era berean, gure herri poesiaren baliabide estetiko batzuk, aurreko lerroaren errepikapen adierazkorra adibidez, ez dira falta gure poetaren obra honetan:

(5) Genealogia berean, Joan Perez Lazarragak aita 1564ean galdu zuela aitorrentz digu, hots, orain arduratzen gaituen obratxo hau burutu baino lehentxoago, egilea oraindik nerabea zelarik. Horrek azal lezake zergatik, bera ezkondu nahi zutenak, gurasoak barik, «ahaide handiak» ziren, hark poema batean dioskunez: *Aide andioc bidaldo deustae / escreviduric carteaa / ezcondu gura ninduqueela /ene gogoco tristea /oy eta bardin onela bada /andia jatorrt caltea / çegaiti bein ez-conduzquero/galdu dot libertadeara.....Ene aideac oy arruen au da /neuronen respuestaed /acordaetaen ez dodala /ain lasterr ezconquetea* (1195v-1196 v). Genealogiarako Ikus Maria COMAS Ros, *Juan López de Lazarraga y el Monasterio de Bidaurreta*, ed. Descartes, Barcelona, 1936, 129-150. orr.

(6) Ikus, honetaz Pruden GARTZIA: «Larrea Burgos baino hobea, Toledoren kidea (I eta II)», in *Berria*, 2004.eko apirilararen 8 eta 9an. Garibaik zalantzak gabe Lazarragagatik irriz aipatzen duen esaera zahar horretarako, gogoratzeko da poetak berak idatziriko hau: «*Oy bada biçi oy nax / (c)ciudadecho chiquirr batean / (n)eurrcheau bacar bacarric / (e)ne yçena letra onetan (=Lazarragaren monograma) / oy dago escreviduric*» 1177 r.

(7) *Askan eder garia / aren gaiñean txoria / eratzun batek bildu lezake / neskatxa, zure ge-rria Gabon-kanten artean. Adibide gehiagorako. Ikus Xabier KINTANA, «Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruaren» in *Fontes Linguae Vasconum*, XXXVI. urtea, 97. zkia. 2004.eko irail-aben-dua, 582. or.*

*Mundu guztian orain ez dago  
guiçon contentuagoric  
oyta nola ni orain nagoan  
çeruco jaunac guraric.  
Çazpigarren ylabetean  
urteje (= urtexe «urtetxo») onau sarturic  
yru egun cunplidu baga  
oy setienbrec emunic  
çeña çan egun aleguerea  
ene laztanac guraric  
ene laztanac guraric eta  
neurc ala trabajaduric.  
Amore poderoso jauna  
asco deusut esquerric  
çu serbiçeco ez jat faltaco  
secula borondateric.  
Denpora baten lotu ninduçun  
catea fortiz batequin,  
jaun çerucoa alabadu çe  
orain banago libreric (8).  
Donzellacho bat ecusi neben  
lindea parebagaric  
oy neure bioz amorosoau  
ydogui çidan bertati  
neuregaz neben libertadea  
eroan çidan berequin. 1181 r*

Bestalde, badirudi garai hartan bazirela Euskal Herrian zehar esaera topiko jadanik finkatu eta oso zabalduak, **Itsaso hondargabea**, adibidez, Lazarragak inoiz erabilia, hurrengo mendean Axularrek, bere «Baina zertarako sartzen naiz ni **itsas hondar gabe hunetan?**» (9) famatuan bezala, edota «**muger arrizco** bioça bano / gogorragoa çuc doçu» 1146 r, Axularren aipatzan duen «**harri-muger**» gogorraren kidea, bai eta aditz sintetiko bereziaz poesian fintaturiko esaera batzuk ere: Etxeparereren *Ezconduyen coplac* poeman agertzen den «*Nic nahyen dudanian bercech besoan daraça*», Lazarragak gutxienez bi aldiz errepikatua: «*aldi bat çeure besoan naraçaçu*» (1186 r) «*alcar daraça-gula besoetan*» (1186 v). Mendebaldeko poesia epikoan eta Bizkaiko galanteariazko poesian behin eta berriro azaltzen diren esaera batzuk (10) ahanzteke.

(8) Bertso honek antz bitxia dauka beste herri kanta ezagunaren bukaerarekin: *Goiko mendian elurra dago / erreka aldean izotza. Ni zugandik libre nago ta / pozik daukat bihotza.*

(9) Bere liburuaren aurreko aldean Bertran Etxaus-ri egindako Gomendiozko gutunean agertua. Horrez gainera badu beste bat: *Eta itsas hondar gabe hunetan sartzen naizela* 226. Cf. Lazarragaren pasarte hauekin: ...gauça sacona bide da yçan / ysaso ondarbagea... 1196 v., ...ondo uste dot galdu çala / ysasoaren ondarretan 1197 r.

Mendebaldeko tradizio zaharrekoak dira, gainera, *Ene aragioc ycara da-bilz...1153 v eta ... jentea negar egitez / ycara jabilt/ lau laurenoc bildurrez, arren nançu / jaun čerucoen amorez / conta deçadan / pasio santua dolo-rez 1203 v modukoak Martin Bañez Artazubiagakoaren 1464 aldeko hilet-eresiaren oihartzun garbiak: Oñetaco lur au jabilt icara / lau araguioc vere an verala (11).*

Erdarazko iturriei dagokienez, Jose Antonio Arana-Martija euskaltzaina berehalia ohartu zenez, obraren prosazko zatia Jorge de Montemayor portugaldarraren *Diana* artzain-eleberriaren nolabaiteko imitazioa da. Garbi dago poeta gazteak gogoz irakurtzen zituela garai hartako erdal literatur lanak ere. Pasarte batean gainera, *La bella mal maridada*-ren aipamena dakarkigu, Jon Kortazarrek eta Patri Urkizuk seinalatu dutenez, eta honela garai hartan gaztelaniaz, frantsesetan portugesez izen horrekin bertso-papereran idatziriko erromantzeetan korritzen zen estereotipo ezaguna bereganatu zuen (12). Men-de horretako idazlan askoren antzera, badaki tarteka *locus amoenus* topiko famatuaren ukitu laburrak egiten: *lauoc batera nor bere ardioaquin joacela to-padu çirean yturri fresco baten aldean nun guztiac alcarr eçauturic berva eguin eusaen...1152 r, bigarren egunean çerbait janda loac artu çituan arbole fresco baçuen azpian..., esan eusaen nola emazteagaz joan çidin jardin batera....»* 1143 v, *...floresta baten erdit. Jarri guinean berbaeten / rosale baten parean...1183 r,* horiek ere, zalantzarik gabe, haren erdal irakurketen ondorioak izanik (13). Ez da falta, bestalde, *carpe diem* topikoaren etsenplurik ere: *Jauna çaoça gueldiric / basoan neurau bacarric nago / çe beguit agravioric. / Ene laztana ezin neyque /nic orrelaco gauçaric / culpa andia eçarri leydae / eyça galdu banegui...1172 r.*

Ene helburuetarako daukan garrantziagatik beherago aipatuko dudan pasarte baten amaieran, gainera, egileak mitologiazko pertsonaia batzuk aipatzen ditu: Medea eta Jason (14). Aurreko esaldiak bere obrari buruzkoak direnez, dirudienetik, perpaus hau ere autoreak egindako beste poema bati dagokio. Pertsonaia hauekiko zati horiek, ordea, ez dira agertzen guregana heldu den

(10) Adibidez, konpara bitez Mikoletak bere irakasbidean dakarren bertso honen hasiera: *Dempora baten on oyneretxu / baña mudatu nindia / serren penatan vior ekidan / eman sengui-dan gloria, Lazarragaren beste honekin: Denpora baten yçan niñçan / amore minez tentadua /don-zella batec edegui çidan / oy neure bioz coytadua.* (1193 v).

(11) Ikus Luis MICHELENA, *Textos arcaicos vascos*, Ed. Minotauro, Madrid, 1964, 91. or.

(12) Ikus Jon KORTAZAR «Ene içena letra onetan» *El País*, País Vasco, 2004.eko martxoaren 7an, 11. or, eta Patri URKIZU, *Joan Perez de Lazarraga, Dianea & Koplak*, Erein, Donostia, 41-42. orr.

(13) Erdal iturrietatik jasoriko lexikoak, *rosale* moduko erdakada nabarmenak barne, ez dio eragozten bere euskal sena azaleratzen, eta horrela *fresco* izenondoia *iturri zein arbole* izenekin darabilkigu, gaztelaniaz bata femeninoa eta bestea maskulinooa direla kontuan hartu gabe.

(14) Ikus 1200 v orrialdeko oharraren azken aldean dakarren zati nahasi hau: *En la copla «A fojas» dize encantadora Medeac bano denpora baten Jasoni beronec bere eztei dio falta gueia-go damari tempora baten oy bano Jasonec ysorgileri...*

testuan, eta, beraz, gure oraingo eskuizkribuaren hasierako 1138 orrialdera heldu arte galdurik (?) zatian zirela pentsatu beharko. Gai klasiko horiek, kontserbatu zaigun pasarteetan agertzen den Marte jainkoa bezala (15), edota Erdi Aroko imaginariumean hain jorratuak izan ziren beste gai batzuk –neskatxa baten aurrean mantsotzen ei den adarbakarra edota kumeak bere odolaz elikatzen omen dituen pelikanoa adibidez– agian latinezko irakurketetatik jasokatzen zituen, baina bera izan zen, zalantzarak gabe, euskal literaturan horiek txertatu zizkigun lehenbizikoa (16).

Halere kanpoko eragin ukaezin horiez landa, badu, ene aburuz, Arabako poetak ukitu gertuagorik. Aurreko batean, prentsara presaka egindako adierazpen batzuetan Etxeparereren nolabaiteko zantza susmatu uste nion. Hura intuitiozko zerbaite zen, baina oraingoan, autore bien testuak patxada handixeagoaz arakatu eta gero, susmo horiek hobeki finkatzen ahaleginduko, edo nahiago baduzue, ausartuko natzaizue.

Honetan sakondu baino lehen, ordea, beharrezkoa deritzot kontsiderazio batzuk egiteari. Alde batetik, Joan Perez Lazarraga euskaltzale eta bertsozalea zen. Bestetik, Etxeparereren obra ere bertsoz osatua zen, eta arabarraren lana baino 22 urtetsu lehenago zegoen argitaraturik. Euskaraz ari zen bertsozale batzen kasuan, pentsatzeko da, pertsona ikasia eta landua izanik, haren berri izan zezakeela, Larreatik Garazirainoko distantzia, muga gora behera, hemendik Toledo edo Madrilera inokoa baino txikiagoa baita, izan. Ezin ahantz dezakagu, horrez gainera, senide batzuk eskribauak zituela, hots, letra-gizonak, eta beraz liburuzale, eta halakoen artean ezin iragan zitekeen Etxeparereren lehen euskal obra hura hotsik atera gabe, are gutxiago, ematen duenez, euskaltzaleak izanik. Gainera, familiaren aldetik noblea izanda, bazituen, hala nahi izaitez gero behintzat, liburu hura eskuratzeko bitartekorik nahiko, bai dirutan eta bai iparraldetik obra hura ekarratzeko harreman pertsonaletan ere.

Ez dugu ahantzi behar, bestalde, aita Gamarraren 1648an idatzi zuen Arantzazuko Ama Birjinaren historia zaharrean, L. Villasantek lehenbiziko al-diz 1966an argitaratuau, hauxe esaten zaigula: ... *y como todas estas cossas son tan savidas, y conocidas es notable la gran devocion, que con esta santa Imagen tienen en todos estos Reynos, principalmente en los de Castilla, Navarra, y Provincias de Guipuzcoa, Vizcaya, y Alaba. Y no es menos la devoción, que tienen los del Reyno de Francia, pues de mas de veinte leguas de la tierra adentro viene todos los años muchissima gente en romeria, assi hombres como mugeres..... y suelen ser los concursos de mucha gente, que tal vez se an visto mas de dos mil personas de Francia juntas.* Gauza berak diosku

---

(15) *Çuec jaquingo doçu eçe ni bidaldo nabela batalla eta guerrataco jaicoac ceñari de-rechan marte...1153 v.*

(16) *uniçornio animal fortiz / animaloen artean / naturalezaz umillaçen da / damaric da-cusenean 1184 v. Pelicanoac amorioz / umeac daguianean / bere odolaz maneniçen dau / guz-tiac açi artean 1184 v.*

Epifanio Pinagak ere: *Los peregrinos que acudían al Santuario eran incontables. En las fiestas principales llegaban «a dos y tres mil» no sólo de Guipúzcoa, Vizcaya Alava y Navarra, sino también de Castilla y de Francia. En el siglo XVIII el número ordinario de peregrinos oscilaba anualmente entre veinticinco y treinta mil.* (17). Hor garbi ageri da jende uholdeak zetozela iparraldetik Lazarragaren bizilekuaren ondora, eta beraz, haiekiko tratua erabat posiblea zela. Nork jakin, gainera, Pruden Gartzia susmatzen duenez, errores horien artean, bere eliztiarren artzain gisa, ez ote zen Etxepare bera ere inoiz Arantzazuraino heldu, bere liburuan ama birjinari egiten dizkion gorai-pamenak agian Arantzazukoari zuzenduak izanik!

Bada, ordea, beste datu bat Lazarragak iparraldeko euskaldunekin harremanak izan zituela frogatzengana. Bere familiaren genealogiaz idatzi zuen memorian, Larreako dorretxearen fundazioaz datu interesgarri bat es-kaintzen digu, toki horren jabetza norengandik eta Nafarroako Eneko Aresta erregearen emaitza batetik zetorrela frogatu nahirik. Hartarako, Teofilo de la Torre izeneko jaunagana jo zuen, beronek usteazko dokumentu zahar baten kopia egin ziezaion, Eneko erregeak 871. urtean haren asaba bat Larrea emanen zioila erakusten omen zuena. Teofilo de la Torre horrez hauxe diosku: *señor que hoy es de dicho palacio de la Torre en (zuriz) a trece leguas de Pamplona;* Egia da aipamen horrek ez digula argitzen jauregia ipar ala hegaztalean zetzan, baina aski argigarria da geroago jaun berberaz eransten duen hau: *Dios le alumbe y le reduzca a la Sta. fe católica amen.* Bistan da, hor-taz, protestante edo judu batez ari zela, eta gauza jakina da garai hartan behintzat erlijio horietakoek ez zutela Nafarroa Garaian bizitzetik. Beraz, Nafarroa Behereko jaun higanot edo judu bat zatekeen hora, eta aipatzen duen distantzia gogoan izanda, gaurko 70-73 kilometro, eta, Frantziako muga 65 bat kilometrotara zegoela jakinda, Teofilo hori segur aski Donibane Garazin bizi zitekeen.

Hortaz, Lazarragak, Arantzazuko erromesen joan-otorriez gainera, interesatzen zitzakion gauzetaurako, beste bide batzuetik ere izan zitzakeen harremanak ipar euskaldunekin, bai eta, bere genealogien liburuan aitortzen duenez, haiei idatzi eta mezulariak opari garestiekin bidaltzeko ere: *y procuré los medios que me parecieron convenientes, en el dicho Capitán [bere]n zen Lazarragari Teofilo de la Torre dokumentu horren originala zeukala jakinarazi ziona] para los aver en mi poder, el qual escribió junto con lo que yo le escribí en 11 del dicho mes de Agº de 1593; y enviando con ellos a Francisco de Quía, soldado, le recibieron marido y mujer con muchas caricias y le dieron respuesta en uno con los dichos privilegios, y el ofreció, según me dixo, al dicho teófilo de la Torre un buen azar [azor ira-*

---

(17) Ikus Luis VILLASANTE-ren *Historia de Aranzazu*, Gasteiz, 1966, 80. or. Iku, halaber, Epifanio PÍNAGAren *Resumen histórico del santuario y convento de Ntra. Sra. de Aránzazu*, Ed. Franciscaca Aránzazu, 1954, 21-22. orr.

kurri behar da, zalantzak gabe] *de mi parte porque diz que mostró mucho deseo del* (18).

Egia da, Trentoko kontzilioaz gero, dirudienez, elizgizonek gai mundutarruegiez idazteko debekuak Etxeparereren obraren ale gehienak sutara eraman bide zituela, eta orduko komunikabideak ere ez zirela gaurkoak bezain azkarrik, baina halere, ez zait arrazoi sendoegirik bururatzan, bai Oihenartek, bai Martinez de Isastik eta bai Larramendik hurrengo mendeetan haren ale bana lortu bazuten, Larrekoak ere, haiek baino lehenago, berea zergatik ezin zezaileen erdiets pentsatzeko, nafarraren obra jadanik bi hamarkada lehenago argitaratua zela kontuan izanda.

Zalantzak gabe, Etxeparereren obra esku artean erabili zuela jakiteko modurik erabakigarriena Lazarragaren beraren aitorpena litzateke. Bainan hori ez daukagu, Montemayor edo beste iturriena ere egiten ez duen bezalaxe, egileari hori aipatzea bururatu ez zitzaiolako edota, beharbada, Trento ondoko giro hurbil hartan badeazpadako liburuak irakurria zela aitortzeak eliz agintariengandik ondorio larriak ekar ziezazkiokelako, Inkisizioeko Spainia harthan (19). Beraz, Etxeparereren ustezko iturria frogatzeko era bakarra eskribu biak elkarrekin parekatzea besterik ez zaigu gelditzen.

Halere, ondo kontuan eduki behar dugu Etxeparereren euskara eta Lazarragarena, gaurko mendebaldeko eta Nafarroa Behereko euskalkiak baino hurbilago egon arren, bazutela alde ez txikia, bai lexikoan, bai adizkeretan eta baita sintaxian ere. Hori dela eta, garbi dago Lazarragak, bere ingurukoek uler-tua izatea nahi bazuen, ezin txerta zitzakeela beti bere poemetan Etxeparereren obran irakurriko pasarteak hitzez hitz, bere euskalkiko ordainezko berbekin baizik. Hortaz, ondoren jarriko ditudan zatiak baldintza horrekin epaitu beharko dira, neurri batean behintzat.

Kidetasunak, oro har, bostetarikoak dira: 1) gaien aukera, 2) gaiak tratatzeko modua, 3) Etxeparereren hitz eta esaldi bereziak, egokiturik, beste bertso eta testuinguruetaen tartekatzea, 4) errima-motak eta, kasu batzuetan, 5) bertsoen ordena ere bai. Aurki daitezkeen guztiak agortzeko inolako asmorik gabe, erakuts ditzadan bederen, horietako batzuk, errazago konparatzeko, elkarren ondoan bi zutabetan eta letra beltzez nabarmenduak.

(18) Ikus Maria COMAS ROS, *Juan Lopez de Lazarraga y el Monasterio de Bidaurreta*, Ed. Descartes, Barcelona, 1936, 92-93. orr.

(19) Ikus adibidez, 1198 r orrialdeko erlijiozko euskal poemaren aurrean egileak, badeazpada zuhurki jarriko oharra: *Aquí comienza un tratado de lo que verdaderamente acontesciera antes y el día del termeroso juicio y el galardon y premio que los buenos y los malos an de resarcir según sus obras compuesto por Lazarraga sometido al gremio y corrección de la Sancta Madre Iglesia arrimado a la ffe y al mejor juicio.*

## AITZINSOLASA

Hasteko, oroit gaitezen da Etxeparek bere liburuaren hitzaurrea Bernard Lehete abokatuari eskaini ziola, mezenas honek lana ikusi eta nahi zuen eraera zuzendurik argitara ziezaion:

*Eta ceren oray çuc, iauna, noble eta naturazcoac beçala, baytuçu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuscará, çuri, neure iaun eta iabia beçala, igorten darauritzut heuscarazco copbla batzu, ene ignoranciareñ araura equinac. Ceren iauna, haiec iqhussiric eta corregiturik plazer duçun beçala, irudi baçautzu, imprimi eraci diçaçun.*

Lazarragak ere badu beste testu bat, gaztelaniaz, hitzez zein mamiaz goikoarekin antz harrigarria daukana:

*Porque a este librero a de andar por el mundo a donde aunque aya muchas personas que entiendan mejor que yo lo sobre dezirlo en el contenido abra hartos que thernan desevo de los saber me parescio no ser cosa superflua al cabo desta hobrezilla dalle a entender a los tales subjetandome en todo a los doctos y discretos para que suplan y corrijan mi ignorancia quiero dezir que ban en halgunas coplas algunas autoridades y nombres castellanos ansi metricos como prosaicos las cuales aunque como arriba dygo ay muchos que las entenderan abra tanbien hartos que no estaran en quenta de lo que por ellas o en ellas quiero dezir por no aver leydo la ystoria y origen dellas y en lo que toca a lo significado dellas digo. (1200 v)*

## JUDIZIO JENERALA

Joan Perezzen obra gehiena maitasunezko poemez osatua izan arren, badiatzka, Etxeparererenak bezala, erlijiozko bertsoak ere, eta horietako batzuk, behenafarrak ukituriko gai berberari buruzkoak. Autore biak, adibidez, azken eguneko judizio jeneralaz ari ziren.

Patri Urkizu ere konturatu da Etxeparereren eta Lazarragaren arteko gaikidetasun honetaz. Halere, azken buruko iturria Mat 25, 37ko pasartea izanik ere, ez dirudi Joanes Leizarragaren 1571ko euskal itzulpena, hitzez hitz, bes-te lan horiekin zuzenki konparatzeko denik, Berazkoizkoarena beste autore horien obrak baino beranduago eman zelako argitara. Halere, Bibliaren pasartean azaltzen den gai hori bi autoreon bertsoetako kontakizunarekin zehatzago erkatzu gero, badirudi Lazarragak ez zituela bere narraziorako soilik kontuan hartu ebanjelariak kontatzen dituen xehetasunak, baina bai, aldiz, Etxeparek bere bertsoetan dakartzan beste elementu gehigarri batzuk, Biblian bereziki ageri ez direnak. Hona:

*Leizarraga:*

*Ecen gosse içan naiz eta eztrautaçue eman iatera: egarri içan naiz, eta eztrautaçue eman edatera: arrotz nincen, eta eznauçue recibitu, billuci, eta eznauçue veztitu: eri eta presoindegian, eta eznauçue visitatu.* Mat, 26, 42-43

Etxepare	Lazarraga
Gure artian haur dacussat ixutarçun handia Nola dugun cerbiçacen hanbat gure exaya Iangoycoa <b>desconozi gure saluaçalia</b> Eta oroc eçagüen dela <b>videgabia.</b>	Eguiten dogu <b>delito bat</b> Guztiz yndolerablea Andiro <b>ofendietan dogu</b> <b>Guztioen criadorea</b>
Bedhatoren contra date orduyan mundu gucia Ceren <b>duten ofenditu hayen creaçalia</b> Ordu hartan ixilic dauque triste veqhatoria Orotaric cerraturic daude paussu guciac	Onegaz <b>enojaetan dogu</b> <b>Guc aren magestadea</b> Alborotadu daroagu Virtuosooen baquea 1159 v
.....	.....
Icussiric <b>anhicetan beharian pobria</b> Eri <b>gosse</b> egarria eta buluzcorria Ene ycenenian anhicetan galdeguinic limosna Çuyec <b>vqhen baytuçuye heçaz guti ansia.</b>	çinbat joaçen <b>ebili pobre</b> munduan <b>goseac ylic</b> oçac bere bay canpuan oy çuetara joan joaçen orduan <b>limosna esque</b> <b>jaungoicoaren contuan</b> <b>çuec oegaz</b> <b>oy contu guichi orduan</b> <b>orain çaoça gumuta deçün lecuan</b> çuelacoac egon doaçen moduan utra gaxtoto biçi çinean munduan ataidea ez çeucala contuan ene gauçaric ez çeucala buruan <b>beti ceonçen</b> <b>Satanasequin jocuan</b> Pensamentuoc Yfini baga çeruan 1199 v

**MAITASUNEZKO BERTSOAK**

Ondoren maitasunezko bertsoetako adibide batzuk erakutsiko ditut. Ideia eta hitzen arteko antz nabarmenez gainera, ez dut uste kasualitatetzet jo behar dugunik kidetasun formal eta tematiko batzuk bi autoreon bilduman, elkarturik, multzo berean, kokaturik egotea. Horrela Etxepareraren bertsoetako elementu eta atal batzuk behin eta berriro tartekaturik agertzen dira Lazarragaren poemetan ere, trataera maiz ezberdina eta inoiz alderantzizkoa ere izan arren.

**Benedica fortuna! Ala encontru hona!**  
 Oray beguietan dicit desiracen nuyen.  
 (Amorez errequeritza)

**Alabaçen dot çeruan Jauna**  
**bide dodana eguinic**  
**çegaiti naben çuregaz batu.** (1170 v)

Oray eguyndu nahi duçuna  
 Eman darautaç ahalgueyçuna  
 Maradicacen dut neure fortuna  
 Ceren **gin vaynendin egun çugana**  
 (Amorosen disputa)

**Haraycinacorik duçu errana:**  
 Vci daçanorrec escuyan duyena  
 Nahi duyenian eztuqueyela,  
 Hiçak hari bira, dugun eguyna.  
 (Amorosen disputa)

**Oray porogacen dicit daquitenen errana**  
**Ehorc vci eztacala escuytan tuyena**  
 Elas yzul albaneça iragan den denbora  
 Segur oray enyueci dudan gogoanveharra  
 (Amorosen partizia)

Bada vci albaynençac ny holacoz yxilic  
**Horren gayz ciraden guero eguienen dut verceric**  
 (Potaren galadacia)

**Ny enuçu ohoyna arrobaçer nyçana**  
 Oray othoy enadila oguen gabe difama.

**Enetaco ohoyn cira ohoyn ere handi cira**  
 Nic veharren nuyen gauça daramaçu çurequila

**Ni ez nuçu jakinxu: clarqui erran eçaçu,**  
**Ehorc unsa adi ciçan nahi valin baduçu**  
 (Amorez errekeritza)

**Lecu onean topadu gara**  
**Jaun çerucoac gurarie**  
 Oy apeadu bear neyque  
 Badoçu borondateric (1172 r)

**Jaun çerucoay emaiten jagot**  
**Oy asco gueraçiaric**  
**Deseo <n>eben ocasio bat**  
**Çerren nagoan jaquinic** (1195 r)

**Neure burua erraz daudit**  
**nic dichosaçat edugui**  
 Jentilhonbrea, çegaiti **naxan**  
**eguin ni çugaz topadiz** (1170v)

**Nic orain diot ynox ez çala**  
**ypui çarric gucurric**  
 çegaiti gauça eguinic ezta  
 munduan secretocoric (1195 r)

ene laztana ezin neyque  
 nic orrelaco gauçariç  
 culpa andia eçarri leydae  
**eyça galdu banegui**  
 jentil onbrea ez neyqueçu  
 neure biçian bervaric  
 oy eta bardin ezpa çe eguit  
 oy orain ychi libreric  
**Biarreçiacurrean datozi**  
 Arren betorque ebeti (1172 r)

Al daguidana nic eguingo dot  
 Ez artu asecabaric  
**Horrela gura doçun azquero**  
**Ezin neyque besteric** (1172 r)

**oy ta çegaiti çu erayteco**  
**ni (sic) eztot poderioric.**  
**Poderioa andia doçu**  
 çeruko jaunac emunic

.....  
**çure berbaoc adietaco**  
**ez dot entendimenturic**  
**claruxeago berva eguiçu**  
**edo çaoça yxilic**  
 ene laztana çure bildur nax  
 ezin eguiñ dot bervaric  
**nic claruago banesaqueçu**  
 oy baneu liçençiaric (1171 r)

**Respostuya eman deraut luçamendu gaberic  
Cortesiaz hon dericüt nic guri hay segurqui  
Berceric nitan eztuqueçu abisacen citut nic  
Gazte **çorao nyçan arren enuqueçu hargatic**  
(Amore gogorraren despita)**

Andre eder gentil batez hautatu çayt veguia  
Herri orotan gauça oroz **eztu vere paria**  
**Othoyce bat baneguyon** larradala egua  
Biderica liçatenez nynzan haren gracian  
(Amore gogorraren despita)

**Albanerra eguya, nyc dut pena handia;**  
secretuqui minça guiten bioc, othoy, maytia»  
(Amorez errequericia)

**Secretuqui vehar dicit harequila minçatú**  
Ordu harten iagoyticoz exay ezpa vaquetu  
Nyri vnsa ezpadaguit vehardicít pintatu  
Ene buruya ciadaú harendaco abastu.

Amoria, nor çyan da gure bion artian?  
Muthaturic väcabilça ia aspaldi handian.  
nic çugana, daquidala, faltatu eztut bician;  
**bioc behin secretuqui nonbait mynça guitian.**  
(Amoros gelosia)

Çuhaur nahi bacirade ni segretu nuqueçu  
Gure arteco amoria echoerc eziaquiqueçu  
**Secretuqui minçaceco othoy bide ydaçu**  
**Enequila minçaciaz gayciq ecin duqueçu**  
(Amore gogorraren despita)

Minzaceco çurequila **gau bat** nahi niquezi  
**Hilabete complituric** hura luça valedi  
Arranguren qhondaceco asti nuyen frangoqui  
Eceyn ere veldur gabe egoyteco çurequi  
(Amorosen partizia)

Gende honac vihoça daut bethi ere nygarrez  
Neure amore chotilda galdu dudan veldurrez  
**Gaoaz loric ecin daydit haren gogoan veharrez**  
Gogoan vehar handi dicit bethe nuyen adarrez  
**Iangoycoa edetaçu** amoria gogotic....  
Eta haren yrudia ene veguietaric....  
(Amoros gelosia)

**Erançun çidan utra cortesdo**  
beguiac abajaduric (1170 v)

**errespuesta emayten çidan**  
**liçala nesca onestua**  
ayta amaac liqueoela  
berebiçico afrontua...(1193 r)

Yruraizco hermandandean  
lecu on baten aldeti  
Dama bategaz topadu ninçan  
**Lindea parebagaric**  
**Berva eguiten asi ninçaçan**  
Jari guinean gueldiric  
Neure bijian ecusi ez dot  
Ayn gauça abisaduric  
**Forma onetan berva neguion**  
Ez jat ançitu bervaric...(1170 r)

**ene laztana solas daigun**  
**gueurcheok bioc bacarric**  
Jaun çerucoaen amorearren  
Jauna çaoça gueldiric (1172 r)

**Daguigun conbersadu alcarragaz**  
**çu nigaz confesadu ni çuregaz**  
Alcarr daraçagula besoetan (1186 v)

...Eguin eguiçu  
nigaz **orrrdu bacox bat cunplidua**  
çu çara ene beguioen espilua (1186 r)

Ene gau egunoc gucioc dolorez  
**Loric ecin eguin dot amore minez** daco  
Ita dolorez oy ene laztanari alan çayrez  
**balia daquidalala Jauna**  
amorez ezpa ilgo naico  
daue rore minez (1171 r)

Amoryac othoy parti guitecen  
 Gendiac diradela hassi beqhaicen  
 Laydoc hartu gabe gueldi guitecen  
**Gendec yrri garri guerta ezquiten.**

---

Horlaco erançutez vci naçaçu  
 Gueldi vacinile nahi nvqueçu  
**Gure echian ohart vadaquizquigu**  
 Bioc iagoyticos galdu guituçu

**Gendiac so daudia bethi gugana**  
 Nihaur secretuqui nator çugana  
 Çuhaurc daquiqueçu noyz den ayzina  
 Neque eçayçula gitia nigana  
**(Amorosen disputa)**

Gayzqui eguin dadinian **gendec sarri daquite**  
 Ene gayzqui eguitiaz **enec laydo luqueyte**  
 Çu eta ni elgarreequi vnsa ecin guynate  
 Çaudé xilic çoaç horrat eta hobe baitate  
**(Amore gogorraren despita)**

---

Munduan ezta gauçaric hayn eder ez placentic  
 Nola emaztia guiçonaren petic buluzgorriric  
**Besso biac çabalduric** dago errendanturic  
 Guiçonorrec daguiela harçaz nahi duyenic  
**(Emazten favore)**

Amore bat onhexi dut guciz soberatuqui  
 Ene arima eta vihoça **iossi dira harequi**  
 Haren yrudí ederrori **veguyetan** echoqui  
 Harçaz orhit nadinian vihoza doa ebaqui  
**(Amorosen partizia)**

**Iauna guertuz hic daducat (sic) porfidia handia**  
**Ixil endin nahi niuec ala ene fedia**  
 Hiz gutitan adi ezac nahi vaduc egua  
 Hiretaco ez diaducat guerthuz neure buruya  
**(Amore gogorraren despita)**

**gaaçustenac oy ez daguien**  
**pensadu beste gauçaric** (1172 r)

errespuesta emayten çidan  
 liçala nesca onestua  
**ayta amaac liqueoela**  
**berebiçico afrontua...(1193 r)**

...secula barriz çe besaqueo  
 besteren abantajaric  
 denporeorrec emun badagui  
 ez egon tentaçacaric  
**çegaiti bera ezta eçingo**  
**ocean çabal çabalic**  
 gabaz egunaz çe beracusque  
 secula cobardiaric  
 laztanagana joango bada  
 çe beroaque lagunic  
 bere **beguiac** oy berabilque  
**laztancoagan josiric...** (1182 r)

---

egun ascotan ni ebili naiz  
 ez dot edugui dicharik  
 Ene lindea, çu ecusteko  
 banago sepultaduric,  
**Oi arren, jauna, xilic bego**  
**çe besat orrelacoric** (1171 r)

oy eta barriz osteangoan  
 arren, **çe beguit burlaric**.  
 Ene laziana, ene fedea  
**ez dot eguiten burlaric** (1171 r)

Vici nyçan egunetan vada ecitut vciren  
 Nic cer oray nahi vaytut heben duçu eguinene  
 Vste diat escuyarqui **eziçala burlacen**  
 Guiçon hunec oray nuya heben laydoz veteren  
 Eyagora nyc cer daydit çauden yxilic hanbaten  
**(Potaren galdacía)**

Vihocian çauri nuçu eta **gathibatu nuçu**  
 Amoretan har naçaçu nic dudana çure duçu  
**(Amorez errequericia)**

**Denbora hartan ohi nicin nic çugatic dolore,**  
 oray aldziz çure faltaz muthatu niz ny ere;  
 malenconya ecitela; vaduqheçu amore,  
 bana ordu vacindueque cençaceko çuc ere  
**(Amorosen partizia)**

Azken bertso hauen hasieran, gainera, itxura osoaren arabera, euskal herri poesiaren ohiko klixeta zen, Lazarragak berak maiz erabiltzeaz gainera, Mi-koletak dakarren bertso batean ere agertzen da eta: *Dempora baten on oy nerchu / baya mudatu nindia / serren penatan vior equida / emon sengidan gloria.*

Kasuren batean baserri giroko irudia bera azpimarra genezake, beste hitzez esana:

**Alhor hartin hel badaquit ereytera hacia**  
 eta ene vada ere lastoa eta vihia,  
 ez batori ahal duquet, ezetare vercia:  
 lan eguinaz esquer gayxto, galdu yrabajzia,  
 bercerenzat gueldicen da ene çucenbidia;  
 aguyan guero alabarequi ezconduko semya.  
**(Ezkonduyen coplac)**

**çure beguioc ecusizquiero**  
**banago catigaturic** (1171 r) (20)

**Denpora baten yçan ninçan**  
**Amore minez tentadua**  
 Donzella batec edegui çidan  
 Oy neure bioz coytadua. (1193 v)

**...çugan ereingo dan**  
**ene acia**  
 ez bildurru eze  
 ezta gacia (1173 r)

Eguin doğuna egüiteraco  
 ez doçu errazoaric  
 çerren nic çuri eman ezticut  
 artaco ocasioric  
**ez gueiago nic eguin ez dot**  
**çure basoan egurric**  
 secula barriz nic ez neguian  
 oy çure contra bervaric  
 (1195 r)

(20) Egia esan, «maitasunezko gatibusuna» aipatzen digun bertso honek antz handiagoa dauka Lope de Vegak bere *Los ramilletes de Madrid* komedian (1615) dakarren euskarazko herri-bertso ezagunarekin: *Zure vegui ederro-<>/ene laztaná / cativaturic nave / librea ninzaná*, eta, segurenik, lehenagoko herri-iturriren batetik jasoa zuketen ideia euskal poeta biok.

Ez dira oso esanguratsuak, Mikoletak berak bere garaian holakoak edo-non oso ezagunak omen zirela dioskulako, baina kontua da lelori-lelori bertsoak ere, kasualitatez, poeta bien lanetan agertzen zaizkigula, garai haietako gainerakoetan ez bezala (21).

**Etay lelory bay lelo** pota franco vercia vego  
Andria minça albacyinde verce alidian emiago  
**(Potaren galdacia)**

Etay lelori bailelo leloa çaray leloa  
Heuscarra da campora eta goacen oro dançara  
**(Sautrela)**

...Ytai lelo y bai lelo  
**echean aray leloa**  
damarica dan galantaena  
Belagai Butroecoa... (1205 r)

## ETXEPAREREN KANTUA

Interesgariak iruditzen zaizkit, bestalde, Lazarragak bere koadernoaren azken aldean dakarren azken judizioaren pasarte batzuk, *Mossen Bernat Echarparere cantuya* delakoarekin aieru bitxia daukatalako. Etxeparek berak kontatzen digunez, Nafarroako erregearen aurrean egin zioten salaketa garbitu nahi-rik, harengana joan zen, baina izterbegien eraginez faltsuki akusatua izan eta ondorioz Biarnon kartzelaldi latza egin behar izan zuen. Gatibualdi hau egiazko eta beldurgarria izan zen, eta ez Hitako Artziprestearena bezala (22), soilki poetikoa, bera preso zegoen bitartean jende batzuek hiltzeko gaztigua paitatzten zuten eta.

Edonola ere, giltzapeko zigor hori bere bekatuengatik bizitza honetan Jainkoak eskaini zion gaztigutzat hartzen du Etxeparek, horrela beste munduko pena ikaragarriagoetarik salbatuko zelakoan. Hori dela eta, erregeareniko pena eta Jainkoaren gaztigua elkarrekin nahasirik azaltzen zaizkigu eta, beraz, litekeena da Joan Perez Lazarragaok, behenafar apaizaren egiazko gorabeherak zuzenik jakin gabe, edota euskalkien ezberdintasunagatik bertsoen esangura ongi ulertu ez zuelako, kontakizuna zerbait metaforikotzat jo eta bertako elementu horiek bere beste poema baten iturburutzat hartzea. Halere, litekeena da autore gazteak lehen euskal poema liburu hura behin eta berriro irakurria izatea eta, inkontzientekei, haren pasarteak, esaldiak eta elementuak asimilatuz, azkenean bere buruko baliabide-biltegian metatzea, eta idaztean haien aldizka ia konturatzeke azaleratzea, jatorrizko materialak bere kasa birmoldatuz, jatorrizko testuan zenarekin beti bat etorri ez arren.

(21) *Modo de la vizcayna poesia y sus versos. Dexando a las coplas de lelori, lelori, que suelen cantar las moças de los días festivos, que no entran en la mas grave poesia vascongada...*

(22) Lazarraga gazteak ere behin bederen maitasuneko kartzelaren kontua dakarkigu: *Ysi jaçun bada seculareco / carçel gogorr onetaco ateac / ay ay ene narru çuri gazteac...* 1182 v, berau ere, noski, erabat fikziozkoa izanez.

Moseen Bernat iaquin vahu gauça nola ginен cen  
**Bearnora gabetaric egon ahal inçancen**

Heldu vehar duyen gauçan ezta escapaceric  
**Nic oguenic ez tuyela** hongi guitez verceric  
 Bide gabec haritu nu vide ez nuyen leqhuric  
 Erregeri gayzqui saldu guertuz **oguen gaberic**

Iaun erreguec meçu nenzan ioan nenguion bertaric  
**Gaycez lagola** ençun nuyen bana nic ez oguenic  
 Izterbeguier eneyen malician leqhuric  
 Ioan nendin enaguien oguen gabe ihesic.

**Valinetan ioan ezpaninz oguenduru ninçaten**  
 Ene contra falseria bethi cinhexi çaten  
 Iustician ençun vaninz sarri ialgui ninçaten  
**Haren faltaz hassi nuçu iauguitiaz dolucen.**

**Vercen gayçaz cençacia çuhurcia handi da**  
 Yzterbegui duyen oro nitan wedi gaztiga  
**Abantallan dabilela albayledi segura**  
**Gayça apart egoyztea bethiere hobe da**

**Iangoycua eguin dicit çure contra beccatu**  
 Hayez nahi enuçula othoy heben punitu  
 Erregueri daquidala nic ezticit faltatu  
**Ceren egon vehar dudan heben hanbat gatibu**

**Vatre minic heben eztue** lecot ialgui anhia  
 Han direnec bethi die suyan **pena handia**  
**Pena handi** ycigarri ecceyn pausu gabia  
 Harçaz orhit adi eta duquec paciencia

Libertatia nola bayta gaucetaco hobena  
 Gathibutan egoytia hala pena gaycena  
**Ny beçala eztadila othoy ehor engana**  
 Ez etare hiz orotan fida ere guicôna  
 Iaygoycua çuc veguira niri ere çucena.

Oy guiçon batec  
**erregue baleu**  
**enojadu**  
**enojaduta**  
**asco maneraz afrontadu**  
 ytaunquetan dot  
**oy leyquean açertadu**  
 atrevimentuz  
**oy balequio arrimadu**  
**nic ez neyque**  
**al egualia consejadu**  
**çerren leyque**  
**oya bertati condenadu**  
.....

Nai equion nic aren contra  
**oy ez neducan quexaric**  
 ez eben gura nic aren causaz  
 eguin neguian negarric  
 ecusen guero ez neucala  
 açertan bere **bearric**  
 bere **crriadu leialaz** nola  
 a niçaz acordaduric

.....  
 esan dogun au  
 arren daygun aclaradu  
 jaquin eguiçu  
**oya dogula enojadu**  
**jaun çerucoa**  
 cereren ditugu quebrantadu  
 oy mandamentu  
 santuac eta traspasadu  
 çegaiti dogun  
**pena andi** merescidu 1198 r,v

## SAUTRELA ETA LOA DE LAS DAMAS Y GALANES BASCONGADOS

Itsuztutako beharko genuke, Lazarragaren poema honetan, zeinetan bere sorterreria, Araba eta Euskal Herria, bi-biak, zein bere izenarekin goraipatzen diuten, eta Etxeparek bere Kontrapas eta Sautrelan ere agertzen diren laudorio-en artean kidetasunik ez ikusteko. Nafarraren kasuan, batez ere, hizkuntzari buruzkoak dira eta bigarrenean hiztunei zuzenduak, baina Lazarragak ez du horregatik hizkuntza ahanzten, Etxeparek ere bere herria, Garazi, herritarrak eta, oro har, euskaldunak oro ahanzten ez dituen bezala. Honetan ere, zinez

esan dezakegu gure lehen poeta biok nork bere jaioterria laudatzean, ondo go-goan izan zutela, aldi berean, beren eskualde hori nazio eremu zabalago batzen atala besterik ez zela, eta horregatik, euskaldunak oro batak eta Euskal Herri osoa besteak goretsi zuten.

**Garacico herria**  
benedica dadila.  
**Heuscarari eman dio**  
behar duyen thornuya.  
.....  
**Bascoac oroc preciatzen**  
Huescarra ez iaquin harren  
Oroc iccassiren dute  
**Oray cer den heuscarra (23)**  
.....  
**Eceyn ere lengoageric**  
Ez francesa ez berceric  
**Oray ezta erideyten**  
Heuscararen pareric  
(Contrapas)

**O heuscarra lauda ezac garacico herria**  
Ceren hantic vqhen baytuc behar duyan thornuya  
Lehenago hi baitinçan lengoageten azquena  
Oray aldiz içanen iz orotaco lehena

**Heuscaldunac mundu orotan preciatu ziraden**  
Bana hayen lengoagiaz berce oro burlatzen  
**Ceren eceyn scripturan erideiten ezpaitzen**  
Oray dute iccassiren nola gauça hona cen.

**Heuscaldun den guicon oroc alcha beça buruya**  
Eci huyen lengoagia içanen da floria  
**Prince eta iaun handiec** oroc haren galidia  
Scribatus halbalut iqhasteco desira  
.....  
**(Sautrela)**

...ysasoorrec horve guztiaz  
beti çagie laudatu  
çegaiti doçun eusquel erria  
aybat bentajaz dotadu  
ysasoori tinta balidi  
çeru çabala liburu  
**oy arabaco abantajaoc**  
egin litezque contadu  
**jende noblea** için nesaque  
bear deustaçu parcatu  
.....  
oy gaztelaco erregue jauna  
erregiagaz (= «erreginagaz») ycasu  
çeure cortean dama ederric  
nola bapere ez doçun  
çegaiti eusquel errian dira  
eder guztioc dotatu  
ene bervaoc jende noblea  
çe daidiçu pensadu  
neure erria alabaçerren  
nic ditudala fingidu  
bada nic (sic) bere jaquin eguiçu  
oya naxala fundadu  
**oy anchinaco liburuetan**  
çenetan ditut eçautu  
**eusquel erriau oy nola eben**  
**erregue batec pobladu**  
gente noblez **da lenguageaz**  
çenac eusten aguindu  
çeruco Jaunaren fede santua  
oy leguiela cunplidu  
**oy salamonec escribiçen dau**  
jente noblea jaquiçu  
**bere biçian oy ez ebela**  
gente obaric topadu.

Loa de las damas y galanes bascongados  
(1169 r-1170 r)

Orain arte aipaturiko kidetasun hauek guztiok, guztiak maila berekoak izan ez arren, ene iritziz nahikoak dira gure lehen euskal poeta bion artean egiazko loturak izan zirela era arrazonagarriaz susmatzeko. Badakit norbaitek esan leza-keela badela antz horiek justifikatzeko beste modurik, hots, autore biak hiruga-

(23) Hemen, segur aski, inprenta hutsa dagoke, errimak «oray heuscarra cer den» eskatzen baitu.

rren iturri batetik edanak izatea, edota garai hartan modan zeuden gai orokor berberak biek, nork bere aldetik landuak izatea, hor eredua hartu baina elkarren berri izan gabe. Litekeena da, baina edonola ere, antz formal horietako bakoitzaz gainera, hor dago guztien multzoa bera: kidetasun horien behin eta berrizko maiatzasuna, gai beroriexen aukera eta, inoiz, gaia garatzeko orduan erabiliriko formulak berak ere bai. Kasualitate gehiegi, eta mende haietako beste ezein euskal idazlerengan aurkitzen ez ditugunak. Ondorioz, ene ustez, arrazoi aski pisutsuak ditugu Lazarragak Etxepareren poemen berri zuzena bazuela pentsatzeko.

Lazarragak Etxepare irakurria izateak, bestalde, funtsezko garrantzia dauka euskal literaturaren interpretazio orokorra egiteko orduan. Izan ere, gure literatura maiz aurkeztu izan den era ikusita, irudi luke gure lehenbiziko idazle zaharrak bana-banako frankotiratzaile bakartiak izan zirela, funtsean apaizak, zein bere eskuadeari begira, muga politikoek aldenduak eta elkarren berri izan gabeak. Azken aldion biltzen ari garen datuen arabera, ordea, errealtitatea oso bestelakoa izan zela dirudi: laikoak eta handikiak ere euskara lantzeaz interesatzen zirela, hasiera-hasieratik bazirela egiazko harremanak Pirinioen alde bateko eta besteko idazleen artean, bazutela elkarren ezagutzarik eta beren obretan bazela, herri bereko semeak ziren aldetik, beren nazioaren literatura sortu eta lantzko kontzientzia, banaketa politikoak gora behera. Erran nahi baita, nolabait, bazekitela euskal literatura nazionala moldatzen ari zirela, ez baitzen kasualitatea, Ernazimendu giro harten, bai Etxeparek eta bai Leizarragak, zeinek bere lanean, nazio hitza, euskaldunei buruz aplikatua, horrelaxe, zehazki, erabiltzea (24).

Gainera, oso esanguratsua da Leizarragaren aipamena «*berce natione gucién artean*» ia-ia Etxepareren hitz berberekin formulatua izatea «*berce natione oroc*», Beraskoizkoak, inoiz susmatu den bezala, Garazikoaren lana irakurria zuela egiaztatuz (25). Lazarragak, bestalde, Etxepareren ildotik, arestian jorratu den bere *Loa de los galanes y damas vascongados* horretan, argi era-kusten du bere sorterria eta jendea goraipatzean zer nolako estimua zion bere nazioari. Gogora dezagun, bidenabar, bera dugula *Euskal Herria* hitza eta konzeptua lehenbiziko aldiz aipatzen digun lehen euskal idazlea. Merezimendu ez txikia, aldi berean gure nazioaren iparraren eta hegoaren arteko lehen Zubia erakusten digun poeta honentzat.

(24) Etxeparek Bernard Leheteri egindako hitzurrean: *Eta causa honegetic guelditzen da abaturic ec ey reputacione vague eta berce nacione oroc uste dute ecin deus ere scriba dayte-yela lengoage hartan nola berce oroc baituite escribatzen beryan.* Gauza bera gertatzen da Leizarragak Joana Albrete Nafarroako erreginari egindako aitzinsolasean ere: *Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac berce natione gucién artean ezgarella hain bassa, non gure lengoagez ecin eçagut eta lauda deçagun gure Iainco Iauna... .* Zalantza izpirik geldi ez dadin, irakur dezagun frantsesezko testua ere: *Toutefois m'asseurant que les Basques, entre toutes autres nations, n'estoyent point si barbares que de ne pouvoir reconnoistre le Seigneur en leur langue...*

(25) Hori pentsarazten digute, behintzat haren hitzek: *nic scribatus dudan lengoage motá baita, sterilenaric eta diversenaric: eta oraino translationetan behinçat, vsatu gabea.* Leizarragak beraz, bazekein euskara bera baino lehenago erabilia zela eta hurbiltasunagatik ezagut zezakeen lehen liburia Etxeparerena zen, Santxo Eltsokoarena haren eskuetaraino heltzeak zailagoa dirudi eta.

Hortaz, XVI. mendean Lazarraga hegoaldekoak Etxeparereren lana ezagutzen zuela kontuan izanda, XVII. mendean Oihenarte ipartarrak hegoaldeko aita Moret historialari nafarrarekin harremanak izan eta eta hegoaldeko atsotitz-biltzaileen lanaz interesaturik zebilela jakinda, Axular hegoaldetarra iparraldeko parrokia baten erretore izan zela, XVIII.ean Joanes Etxeberri Sarakoa hegoalde honetan, Beran, Hondarribian eta Azkoitian mediku ibili zela gogoratuz, hortik aurrerako harreman ezagunagoak ez aipatzeagatik, zinez esan dezakegu gure literaturak h-siera-hasieratik izan duela gaurdaino sekula hautsi ez den batasun-kate etengabea. Hor, noski, Lope Martinez de Isasti edota Manuel Larramendi moduko autoreen lekukotasuna ere aipa genezake, hegoaldekoak izanik ere, nork bere obretan iparraldeko euskal idazleen lanen berri bazutela garbi aitortzen ziguten eta.

## LAZARRAGAREN TRATAERAK

Baina bego literatura bere lekuau eta iragan nadin edo, Lazarragari segituz, nairagan orain neure lantxo honen bigarren atalera. Honetan Larreako jaunak elkarritzetan –egiazkoetan zein fiktizioetan– darabiltzan trataerak gaingiroki aztertzen saiatuko naiz.

Funtsean, hegoaldeko gaurko euskaran bezala, bi dira arabarraren trataerak: zuka eta hika.

Lehena, zukako trataera markatu gabe eta kortesiazko moduan erabiltzen du:

*Donzellacho linda damea  
flordelisea cara çu.  
Ene penea dacusun guero  
arren berva bat esaçu».*

.....  
*Jentil hombre penadua enegaiti cautibua  
çure llantu dolorosooc  
emaiten deustae contentua 1143 r.*

*Ene jauna, çer diostaçu  
çer daucaçu bularretan  
çaguita bat eben daucat 1197 r.*

Gogoan izan behar da Lazarragaren euskaran, plural zaharreko *zu* izen ordaina jadanik singularra zela, pluralerako forma *zuek* izanik, aldamenean *guek* zeukana, Done Emiliagako glosa zaharretako *guec ajutu ez dugu* hartan bezala edota Zigoitiko euskaraz Azkuek bere garaian oraindik bizirik aurkitu zuenez, eta hor ere Alfonso Irigoienek aztertu zuen fenomeno interesgarria agertzen dela (26). Edonola ere, singularreko zein pluraleko izenordainoi bi-

---

(26) Ikus Alfonso IRIGOYEN, «Done Miliaga Kukullakoa eta euskara», *Euskera*, XX, 1975, Bilbao, 161-186 orr.

garren pertsonako adizkera berbera zegokien: *zu zara eta zuek zara alegia, ge-roagoko beste autore batzuetan bezala.*

Bestalde, hika edo hitanozko trataera norbera baino maila apalagokoekin ohi darabil Lazarragak (artzainekin, soldaduekin, senideen artean, etsaiekin, Kristok Done Petri...) bai eta senide arteko harremanetan ere:

*Silvia despediduric bere ugaçabaganic ynorc eçautu ez leguiiançat quen-du eben bere jaztecoac eta artu eben arçai baten jaztecoac. Eia asi can bere biajea arçaen Silvero joeala equian lecuetati. Egun baten bada bere bideti jo-eala topadu çan arçai bigaz çenai Silviac ytaundu eusten nora lloaçen, çenac erançun eusten manera onetan: Arçai polita (27), yc jaquingo doc eçe guec goaçela Dueroco riberara, çegaiti ençun dogu ezen Silvero derechan arçai bat-tec dabela lucha andiac armatu comarcaetako arçai guztiagoon eta dagoala denporea asignadur (sic) egun seigarren eguneco eta ala ene lagunau eta ni goaç ara Silveroren jentilezac ekusterren çegaiti utra manera andian daçauen guztioc alabadu deuscue. Silviak Silveroren ycena ençun eguiian orduan asi çan negar egiten 1147 r,v*

*Donostiac San Françiscuan  
agoan giçon soldadua  
Donçelleoni eguin jacac  
Yzta ondoan anditua  
Nyc lançeteaz jo diat eta  
Oy yc eçarroc emplastua. 1193 r*

*Gau-egunetan beti nago  
Esecoquin deadarrez  
Senarr gureak oita nago  
Esecxeoc beti barrez:  
Oraingaño gaztea ax ta  
Urrtexe baten goza adi. 36. or. Aur.*

*Traidorea, çerr da onela  
çer eguin deuc jauregquietan  
eyz ona  
yehi dinat menaetan  
igo eguinda  
asi adi moçietan  
ni banajoa (sic)  
salsearen aurrquietan  
ez al deustac baldin eguia contaetan 1197 r*

---

(27) Ohartzekoa da gaur Hegozeldeko euskaldunen artean bederen, seguraski gaztelaniaz «bonito» izenlaguna pertsonekin femeninozko eran emakumeei besterik esaten ez zaienez gero, «gizon polita» edo «gazte polita» gisako esaerak ezohiko bilakatu direla, hortik *guapo* moduko erdarakadetara iraganaraziz. Ez da hori, ordea, Lazarragak pasarte honetan darakuskiguna.

*Sar ezac, Peru  
gabineteori geldiric  
bere lecuan.*  
*Ze eguiic beste gauçaric*  
 Armaz inor il daguia[na]c  
*armaz il bearco dic.*  
*Jan done Periac*  
*ez eguiian besteric*  
*sartu eguiian gabinetea exilic ...1200-v*

Halere, kasu batuetan, gaur ohikoa izaten den trataeraen ez bezala, aita-amek seme-alabei hika eta hauek gurasoei zuka egin beharrean, kasuren batean, zergatik ez dakigula, bada semeari zuka egiten dion aita bat (gaur ere aski normala denez) eta aitari hika egiten dion seme bat ere bai:

*baeson aiteac: ene semea  
neuri baño oba **derechudana** (28),  
ebenche biçi da ene laztana, 1154 r (beheko bazterrean)*  
*Semerik badeu, esaten jago  
Aita, **eguidac** jaquea.  
Ari jaquea eguin orduco  
alabeorrec gonea.  
Oy ainbat dacust laçeria çé  
eraetan jat fedea.  
Oni aparta al daguiona  
dicha oneco semea, 1196r*

Etxeparek egiten zuen bezala, hasieran zuka trataturiko pertsonei, ordea, hika egiten die horiekin haserretuz gero, lagun horiei nolabaiteko mespretxua adierazteko:

*... horrelaco vanitatez nyri segur uztaçu  
provechuric eztuqueçu eta cinhex nazaçu  
Iauna guerthuz **hic daducat** (sic) porfidia handia  
Ixil **endin** nahi **niquec** ala ene fedia (Amore gogorraren despita)*

*Doridoc utra enojaduric erançun eusan: O falsa traidorea, **quen aquit** neure begietaric, ene desdicheonen causea **i axanazquero**. Zegai[ti] yc Silve-  
rori onorechi **baeuso**, Silviac bere niri ezin ucatu eidan neure remedioa; bada  
oneinbat gach **ire** causaz etorri danazquero çegaiti **ezton** losaric berba oriec  
esaten gure aurrean? 1152-v*

---

(28) Gaur egungo euskaran behintzat «neuri» horren lekuan «neure buruari» espero genezake. Joskera horren logikaz *Nik neuri (\*derextadana) baño oba deretxut* gisako zerbaiz izan beharko litzateke, erabat aberrante eta dokumentatu gabea.

Halere, solaskideren batek, eskuarki andreak, besteri errespetua, beldurra edota urruntasuna adierazi nahi dionean, aldizka bederen, bigarren pertsonatik hirugarren pertsonara iragaten da, gaur egun hegoaldean eskuarki **berorika** deitzen dugun trataerara pasatuz.

*Erançun çidan utra cortesdo  
beguiac abajaduric  
Neure buruau erraz daudit  
nic dichosaçat edugui  
Jentilhonbrea, çegaiti naxan  
eguin ni çugaz topadiz  
oy eta barriz osteangoan  
arren, çe beguit burlaric.  
Ene laztana, ene fedea  
ez dot eguiten burlaric  
egun ascotan ni ebili naiz  
ez dot edugui dicharic  
Ene lindea, çu ecusteko  
banago sepultaduric,  
Oi arren, jauna, yxilic bego  
çe besat orrelacoric  
y ta çegaiti çu erayteco (= «hiltzeko»)  
ni (sic) eztot poderioric. 1171 r*

*Lecu onean topadu gara  
Jaun çerucoac guraric  
oso apeadu bearneuque  
badoçu borondateric  
ene laztana solas daigun  
gueurcheok bioc bacarric  
Jaun çerucoaen amorearren  
Jauna çaoça gueldiric  
basoan neurau bacarric nago  
çe beguit agravioric.  
Ene laztana ezin neyque  
nic orrelaco gauçaric  
culpa andia eçarri leydae  
eyça galdu banegui.  
Jentil onbrea ez neyqueçu  
neure biçian bervaric  
oy eta bardin ezpa zeeguit  
oy orain ychi libreric.  
Biarreçiac urean datorz  
arren betorque ebeti.  
Aldaguidana nic eguingo dot*

*ez artu asecabaric  
 Orrela gura doçunazquero  
 ezin neyque besteric  
 domecan etorrico naiz  
 eztot eguingo faltaric  
 ascotan ondo queratu çatez  
 ene lindea bacaric  
 oy eseguino lagun deycut  
 badoçu borondateric.  
 Esquerriac asco jentil onbrea  
 Ez dot ardura lagunic  
 gaacustenac oy ez daguien  
 pensadu beste gauçaric.  
 Ychi neusan bervaxeoek  
 neure laztanaz eguinic  
**berori defendidu jat eta**  
 ni queratu nax galduric 1172 r,v*

Gogoan izan dezagun, halere, Mikoletak bere obratxoan, *berori*-kako tra-  
taerarekin batera, *zure mesede hori eta horren mesede hori* ere erabiltzen di-  
tuela, azken biok, dirudienez, garai hartako erdarazko vuesa *merced* eta *su  
merced*-en azken orduko itzulpen hutsak izanik, hurrengo etsenpluok erakus-  
ten dutenez:

*Ori liçate valiz **sure meçedeori** persona sospechacoa, serren esta ayta-  
tuco soquea, vrcatuen eseau ...*

*Agur D. Juan jauna, dala **berori** ondo etorri seyn urte onac: selan dago  
berrori?...*

**Berrori** seruietaco deunsuro; xauna **bis** bedeyncatu ...

*Selan alanestaude despachetan **orren meçede** ori ...*

*Ser nay daude almorzadu **orren meçedeok?**...*

*Nondic ysan ditu **oren meçede orec** tapiz hoc? ...*

*Emen ecussico dau seure **meçede orec** bufete bat obetu eguinic....*

*Xauna se **begui** ori esan, se gausa balsa da bacartasuna ...*

*D. Juan xauna **xarri bidi** ma<i>puruau ...*

**Artu begui berrorec** berre lecua, se neuc artuco dot neurea ...

Edonola ere, ezin segura dezakegu Arabako poeta honen kasuan forma  
hori zehazki nolakoa zen. Izan ere, aditza hirugarren pertsonan daukan trata-  
era honen izenordaina, heldu zaizkigun testuetan behintzat, birritan besterik ez  
dugu aurkitu, oraintsu aipaturikoan (1172 v), esanguragatik errespetuzko tra-

taera ote den oso garbi egon ez arren, eta testuko eta lehen orrialdean, eta horretan ere era ez osoan: «....nai ezpadau ni **cure mesedeorr...**»

## LAZARRAGAREN HITANOAREN BEREZITASUNAK

Ohartzekoa da, ordea, Lazarragak bigarren pertsonari hika egiten dionean, horrek ez dakarrela aldean gainerako adizkera guztiak ere modu alokutiboz jarri beharra. Beste hitzez esateko, Lazarragak bazekien *hi haiz-en* ondoan *ni nauk* esan zitekeela, baina aldi berean zilegi zuela *ni naiz* ere erabiltzea, hots, nahitaezko aditz forma bakarrak *hik*, *hi* eta *hiri* pertsonei zuzenki zegozkienak zirela, bigarren pertsonarekin komunzaura zuzena ez zeukaten gainerako adizkera guztietan solaskidearekiko erreferentzia egitea edo ez egitea librea izanik:

*Donostiacos San Franciscuan  
agoan giçon soldadua  
Donçelleoni eguin jacac  
Yzta ondoan anditua  
Nyc lançeteaz jo diat eta  
Oy yc eçarroc emplastua.* 1193-r  
  
*Sar ezac, Peru  
gabineteori geldiric  
bere lecuan.  
Ze eguiç beste gauçaric  
Armaç inor il daguia[najc  
armaz il bearco dic.* 1200-v

Baina halere:

*Arçai polita, yc jaquingo doc eçe guec goaçela Dueroco riberara, çegaiti ençun dogu ezen Silvero derechan arçai batec dabela lucha andiac armatu comarcaetako arçai guztiak in eta dagoala denporea asignadur (sic) egun seigarren egunecho eta ala ene lagun au eta ni goaç ara Silveroren jentilezac ecusterren çegaiti utra manera andian daçauen guztioc alabadu deus-cue.* 1147 r-v.

*Silveroc erançun eusan Silvia quen aquit orrean çegaiti nic eçin antçı-tu neydi anybat denporan on derechadan gauçea* 1149 r.

*O falsa traidorea, quen aquit neure begietaric, ene desdicheonen causea i axanazquero. Zegai[ti] yc Silverori onerechi baeuso, Silviac bere niri ezin ucatu eidan neure remedioa; bada oneinbat gach ire causaz etorri danazquero çegaiti ezton losaric berba oriec esaten gure aurrean?* 1152 v.

Lazarragak hikako trataeran erakusten zaigun egoera, gutxi gora behera, Etxeparerentzako garaien, zuketari dagokionez, Nafarroa Beherean bizirik zegoen eta orain arte inguru horretan guregana heldu den sistemaren kidea da. Hor, dakigunez, hiztunek solaskideari zuka egiten diotenean bi aukera dituzte: a) lagun horri *zara*, *zaizu*, *duzu*, *d(er)autzugu*, *d(er)aukuzu* moduko adizkerak zuzenden baina gainerako adizkeretan bigarren pertsona horrekiko aipamenik bat ere ez egitea: *naiz*, *da*, *dira*, *dugu*, *diogu*, *dator*, *dago*..., eta b) gainerako adizkeretan ere zu pertsona alokutiboki aipatzea: *etorri*, *nauzu*, *jin*, *dituzu*, *heldu*, *duzu*, *egin*, *dizut* 'egin dut', *diatorzu*, *diagozu* etab. Dena den, Etxeparerentzako garaien behintzat alokuzio hori ez zen adizkera guztietan nahitaez jarri behar, gaur, dirudienez, Nafarroa Beherean eta Zuberoan xuka egitean jadanik gertatzen denez. Ikus, beste adibide batzuen artetik Etxeparerentzako bertso hau:

*Amore bat uqhen dicit miragarri gentilic  
Harequila ninçanian enuyen nic faltaric  
Nic iagoytic ecyn nuque hora væçayn mayteric  
Haren minez oray nago ecin hilez viciric.*

### Amoros gelosia

Hizkuntzaren diakroniarentzako aldetik, begien bistan dago aditz paradigmek berek eskatzen dutela hasiera batean *naiz* eta *haiz*, *dut*, *duk* eta *dun* aldamean egotea, ez baita sinesgarria *di(n)at*, *duk/n*, *dik/n*, *di(n)agu*, *di(n)ate* moduko segida irregular ilogikoak antzinatik etortzea. Hortaz, zuzenki *hi*, *hik*, *hiri* pertsonei ez dagozkien adizkera guztiek denboran zehar pixkanaka erantsirikoak dirudite, ondoren emanen ditudan datuen arabera. Eta beste horrenbeste esan daiteke xukako trataeraren eboluzioaz ere.

Alde batetik, gogoratu beharra dago ez dela Lazarraga oinarrizko hitano hori zerabilen autore bakarra. Itxura osoaren arabera, alokuzioa gainerako adizkera guztietara XVI. mendean baino lehenteagoa hasi zitzagun hedatzen, eta, hasieran muga zehatz batzuen barruan besterik ez.

Inoiz edo behin era horretako adibideak 1596.eko RySetan ere aurkitzen ditugu, esaera zaharrek, beren izaera fosil eta kontserbadoreagatik, bildu ziren garaikoa baino hizkuntz tradizio zaharragoa gordetzen dutelako:

*Badaguic suatean ypirdia vzcarti, cejan verba day eugayti «Si haces en la cocina el culo pedorro, hablará por tí en el mercado»* RyS 33.

*Az ezac erroya, diratan beguia, ta mutil guextoak quendu deyque arguia «Cría el cuervo, sacar te ha el ojo y quitar te ha la luz el mal mozo»* RyS 136.

*Lapurrac on dau vcoa, vca eyquec gaxtoa «bien le es al ladrón negar, negarás perverso»* RyS 203.

*Yl eyquec, ta yl aye, ta yre erallea yl daye «matar le has, y matar te han, y a tu matador matarán»* RyS 227.

*Ecachac dacar aro ona, gaxtoa vaynzate oba «La tempestad trae buen temporal, perverso podrías ser mejor» RyS 293.*

*Yre auçoac eztequian gacha ona da «daño que no te sabe tu vecino, bueno es» RyS 431*

*Catuac daroean oquelea gueyago da verea ce ez eurea «La tajada que lleva el gato más es suya que no tuya» RyS 468.*

Edonola ere, XVI. mendean hikako forma alokutiboak hedatu zirenean, beren erabilera muga jakin hauek zituzten: a) alokutiboak perpaus nagusietako adizkeretan ager zitezkeen, baiezko zein ezezko esaldietan, baina ez galderetan; hauetan hitano murriztua besterik ez zen zilegi: *hi, hik, hiri* izenordainei zegokiena alegia. b) menpeko esaldietan ere (-en, -ela, -nean, baldintzako *ba-*, *bait-* eta antzeko hizkiekin markatuetan) hitano murriztua erabili beharra zegoen. c) subjuntibo eta inperatiboetan ez zegoen alokutiborik, baina bai potentzialetan.

Arau honek luzaro iraun du XVI, XVII, XVIII eta XIX. mendeetako hiztun eta idazlen gehienetan kontzientzian, salbuespenik ia bat ere gabe. Joan den mendean zehar, eta bereziki azken aldian, ordea, lehenagoko erregelea hertsi hora ahulduz joan da, eta gaur egunean, gazte jendearen artean alokutiboak maiz entzun daitezke galderetan (*Martin ez dok etorri ala?*) bai eta erlatibo eta menpekoetan ere (*hik ez dok ikusi goizean hona etorri doan multila; Mikel eta Begoña hona jatozaalako*), inoiz ez bezalako eremuak bereganatuz.

Etengabeko hedadura horren ondorioz, hitanoa, etxeko giroan jaso ez dutenarentzat ez bada, –eta holakoentzat ere bere famili eta herriko ingurune konkreto horretan erabiltzen den modu berezian besterik ez– etengabeki zailduz, korapilatuz eta dialektalizatzu joan da, eta gaur egun praktikan ezin ikasizkoa gertatzen zaio zuka egiten ohitura dagoen euskaldun zahar zein berriari. Izan ere, gauzak ikasteko, beti errazenetik azaltzen hasi behar izaten direlako, hasieran ikaslei, –haur, gazte zein zaharrak izan–, elkarren artean zuka egiten irakasten zaie, eta behin maila jasoagora heltzen direnean, bat-batean hika egiten hastea eskatzen zaie. Ondorioz, ordura arte beren ezagun, lagun eta inguruiko pertsoneneko harremanak zuka ondo ezarriak eta finkatuak dauzkatelako, tratuzko lotura formalak etetea ezinezkoa gertatzen zaie, eta, kasurik onenean, hika ulertzera heltzen dira, baina ez dute behin ere ikasten elkarren artean erabiltzen, esandako metodologia desegoki horren erruz.

Aldiz, behin zuka ikasiz gero, pentsatzen dut inori ez litzaiokeela zailegia gertatuko Nafarroa Behereko edo Zuberoako usarioari segituz, lantzean behin zukako alokutibo batzuk tartekatuz joatea (*zure aita jina duzu, neskak joan dituzu, ama ikusi dizut, hortxe diagozu bezalakoak*), pixkanaka bertako usariora hurbilduz.

Arazo hau dela eta, duela urte asko, Mitxelena zenarekin mintzatu nintzen, galdeztu ea berak ezagutzen ote zuen inor hitanoa adizkera guztietan ondo erabiltzen zuenik. Gogoan dut ezetz erantzun zidala: «-Oro har, hika egi-ten dutenek, orainaldiko eta lehenaldiko adizkera ezagunenetan erabiltzen dute, eta inoiz hipotetikoetan ere bai, baina zaila da potentzialetan ere hika entzutea».

Nik orduan galdeztu nion ez ote litzatekeen hobe izango, hika erabat gal ez dadin, metodologiaz bederen, hasieran, gutxienezko hitanoarekin hastea (hi, hik, hiri), horien aldamenean gainerako adizkerak mantenduz (*naiz, dute, nintzen, luke* etab., *nauk/n, ditek/n, nindu(n)an, likek/n* etabar hasieran saihesturik) eta geroago, pixkanaka, maiztasun handikoa formak ikasiz joan ahala, horiek ere pixkanaka sartzen joateko (*zagok, zohoak, sartu gaituk, ekarri zian*, etab.). Berak erantzun zidan bere ustez horixe zatekeela, segurenetik, bide egoiki bakarra, hika, oraingo bidetik erabat galduko zen eta.

Koldo hilda gero, hikako tratamenduaren etengabeko gainbeheraz kezkaturik, arazo hau inoiz edo behin lagun eta ikaskide batzuekin tratatu dut, modu informalean bada ere, baina, derradan bidenabar, arrakasta handirik gabe. Ene ideiaren aurka, batzuek erantzun didate, hortik abiatuz gero egiazko hika faltsutuko genukeela, erraztasunaren bila, bere osotasun konplexu eta aberatsaren ezaugarri batzuk, hasieran bederen, saihestu beharko genituzkeelako.

Hemen ere, *sit ut est, aut non sit*. Badirudi batzuek nahiago luketela hitano osoa galdurik ikustea, txarrenean ere, horren gutxienezko ezaugarriak mantentzea baino. Bestalde, faltsutzeari doakionez ere, bada zer esanik. Izan ere, zer da faltsuagoa: gure haurren artean orauntsu arte behin ere erabili ez den zukako trataera exklusibo hori, gaurko eskola-praktikarekin neba-arreba, lagun, adinkide eta adiskideen artean irakasten zaien bakarra, ala oinarrizko hitanoa bultzatzea, gutxienez haurren artean hika egitea gordeko lukeena? Ez al gara konturatzen, nolabait, gure haurrak euskaran gaztelaniaz beren artean *usted*-ka ari balira bezala hazten ditugula? Zergatik ez jokatu hitanoarekin La-zarragak egiten zuenez, edota Nafarroa Beherean eta Zuberoan zuketarekin egiten zen bezala, bi bertsioak gordez: oinarrizko eta osatura, lehenengotik bigarrenera iragateko zubia erratzuz?.

Ene ustez, gainera, hitano osoa, derrigorrezko eta mugarik gabeko alo-kutiboekin, horrela mantentzea gure hizkuntza izugarrirro eta alferrik zaitzeaz gainera, inoiz kaltegarria ere izan daiteke. Ezin ahantz dezakegu maiz trataean adiskidetasunezko eta errespetuzko bigarren pertsonen artean bereizten daiten hizkuntzetatik euskarara itzulpenak egin behar izaten ditugula (esp. *tú / Vd*, fr. *tu / vous*, cat. *tu / vostè*, it. *tu / lei*, ing. *zah. thou / you*, al. *du / Sie*, err. *ty / vy*, georg. *šen / tkven...*) eta translazio horiek egiteko, bere oraingo eta nahitaezko aberastasunean, gure gaurko hitanoa ez dela beti egokia, hizkuntza

horietako jatorrizko testuetan baino askoz ere informazio gehiago ematen dugulako, horretarako premiarik ez denean (29).

Gauza jakina da denboran zehar, moden eta gora-behera historikoen arabera, trataerak aldatuz joaten direla. Ikusi dugunez, gure hitanoa ere aldatuz joan da, hasierako sinpletasunetik gaurko zaitasun ia erabilezineraino helduz. Ene aburuz, bide horrek nora garamatzan serioski pentsatu beharko genuke, eta geure buruari galduetaz ez ote genukeen hobe, gehiegizko apaindura horiek guztiak alde batera utzi beharrean, orain arte zuketa hobestean egiten dugunez, hitanoaren oinarritzko ezaugariak mantendu eta irakaskuntzan eta giza tratuan errazenetik bederen abiatzea.

Antzinako euskaldunek behintzat horretarako eredu ona eskaintzen digute: hika jarduteko ez dela beharrezko gainerako alokutibo guztiak ere erabiltea, eta Euskaltzaindian, nik uste, ez genuke gutxienezko hitano horren erabilera gaitzetsi behar, urte gutxi barru hitano osoa galdurik ikusi nahi ez badugu behintzat. Horra ba nondik, gaurko arazo bat konpondu ahal izateko ere, Joan Perez Lazarraga zahar gazteak irtenbide interesarria eskaintzen digun.

Eta besterik ez, jaun-andreok. Guztioi eskerrik asko.

---

(29) Eta inoiz, inola ere eman behar ez litzatekeen informazioa ere bai. Gogora dezagun, adibidez, Brian de Palmaren film famatu baten kasua, ingelesez *Dressed to kill* deitua eta euskarara *Hiltzeko jantzirik* itzulia, gaztelaniaz, oso desegokiro, *Vestida para matar* gisa eman zen, hiltailearen sexua, ingelesez eta euskaraz neutroki ezkutatua, hor hasieratik salatzen zuelako. *Vestirse para matar* moduko itzulpenak, ordea, mantentzen zezakeen ezkutuan gaztelaniaz ere erailearen nortasuna.

## **JOAN PEREZ DE LAZARRAGA, FAMILIAREN KRONISTA**

*Henrike Knörr*

Joan Perez de Lazarragaren izena eta omena dugu guztien aho-ezpainetan 2004ko urtarriletik, hau da, eskuizkribuaren aurkikundearen berri eman zenean. Bainaz idazle gisa dituen merezimenduez gain, ez da ahantzi behar bere familiaren kronika bat idatzi zuela. Hobeki esan, haren aitagarrebak utzi zuen kronika berregin eta eguneratu zuen. Joan Perez de Lazarragaren letra ageri da garbi eskuizkribuan, azken urteak arte. Honela deitzen da kronika: *Relacion histórica de las casas y apellidos de Lazarraga (privilegio de la Fundación de la Torre de Larrea dada en el año de 839), linaje de Erdoñana de los Otaloros y Zuazo Gamboa, de los Velascos, de los puestos y dignidades de unos y otros, todo con remisión a documentos y otras cosas perteneciente a ella.*

Kronika honek, arrazoi osoz, ikertzaile asko erakari ditu, hala nola Juan Carlos Guerra, Koldo Mitxelena, Iñaki Zumalde edo Micaela Portilla (1). Kopia batzuk ezagutzen dira, baina jatorrizko alea Gasteizen da, Elizbarriutaren Artxiboaan (2). Velascotarren familiatik joan zen hara; gogoratu behar da Velasco bat idazlearen alaba batekin ezkondu zela. Eskuzkribu honen bigarren partean bada kopia bat, XIX. mendekoa, zalantzarak gabe jatorrizko testua errazago irakurtzeko.

Lau ikertzaile horien izenei beste bat erantsi behar diegu: Maria Comas Ros katalanarena. Comas andrea Oñatira etorri zen, Geografia eta Historia katedradun, eta Oñatiz maitemindu zen, berak aitortzen duenez. Maitemindu ez ezik, erabaki ere zuen Oñatiren historia ikertzea. Eta horra zenbait urteren buruan nola egin zuen doktorego tesiak. Horren mami nagusia 1936an libururatu zen, titulu honekin: *Juan López de Lazarraga, secretario de los Reyes Católicos, y el monasterio de Bidaurreta en la villa de Oñate* (3).


Egia da Comas andreak egin zituela huts ugari kronika honen edizioan, gainerako dokumentuetan bezala. Adibidez, kronikaren lehen hitzetan konta-

---

(1) Ikus bibliografia.

(2) Gasteizko Elizbarriutaren Artxiboa, 5041-1.

(3) Ediciones Descartes, Bartzelona 1936. Aurreko urtean aurkeztu zuen Comas andreak tesiak. Liburuaren lehen orrialdeetan aldeko diktamena ageri da, Serapio Múgicak izenpetua.

Años 70-84		
Escudos, y signos y demás de Armas q' me tocan y pertenecen. Año 70 p'ez d'Elegir a la reina. P'ez de Passados.		
Passados.	bisagras.	Aguilas.
	Gomez de la Torre. Hijo de Pedro de la Torre y su esposa Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	P'ez de la casa de Gomez de la Torre. Hijo de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.
	Padres de bisagras. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	Padres de bisagras. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.
	Padres de bisagras. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	Padres de bisagras. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.
Quinto p'ez de la reina. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	6. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	7. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.
8. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	9. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	10. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.
11. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	12. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.	13. Con Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Hijo de Gomez de la Torre y Leonor de la Torre. Se casó con Leonor de la Torre, hija de Pedro de la Torre y Leonor de la Torre. Tuvieron 3 hijos: Pedro, Leonor y Francisco.

Kronikaren orrialde bat.

tzen zaigu nola Lazarraga batek aurkitu zuen urrezko altxor bat *Urrupologaray* izeneko tokian; *Urruxolagaray* irakurri behar da, hots, *Urruxolagarai*. *Ozeta* herriaren izena ere gaizki dator: *Oreta*, eta *Añua* gabe *Auna*. Baino, maiz gertatzen denez, hau dugu edizio bakarra, akatsak gorabehera, eta zordun gara Maria Comasekiko. Eta orain galdera bat: gerra ondoren nora joan zen andre hura? Non bizi izan zen? Noiz hil zen? Nik bederen ez dakit deus ere.

Genealogia eta kronika mota hauetan ikusten ohi dena dakusagu hemen ere: familiaren loria eta antzinatasuna goraipatzen da. Eta hain zaharra da familia! Izkribu honen arabera, Eneko Aristak berak sortu zuen Larreko dorrea, IX. mendean (4).

Elezaharrak elezahar, ordea, funtsean bada egiaren zati bat, Micaela Portillak argi ikusi zuen bezala (5). Izañ ere, nafar erregeak ganboatarren alde zeuden Arabako muga-herri hauetan. Ekialdeko Lautadaz ari gara, jakina, eta hona Lazarragatarra 1439an iritsi ziren, hau ez da gezurra. Bidenabar, esan dezagun *Arabamendi* izena darabilela Joan Perez de Lazarraga kronika honetan, guk Urkilla eta Elgea deitzen ditugunak deitzeko, eta ez gara batere urrutি Oñati aldean egun arrunta den izenetik: *Arabako mendiak*.

Lazarragatarren balentriak kontatzen zaizkigu hemen zabal-zabal. Zinez familia handia, hainbat lekutan hedatua eta adarkatua, Italian eta Ameriketan ere. Horien guztien indarra eta itzala da hemen mintzagai. Eskuizkribuaren tituluan bertan dago oso garbi helburua: *Relación histórica de las casas y apellidos de los Lazárraga (...) de los puestos y dignidades de unos y otros*. De netarikoak dira, jakina, *puestos y dignidades* horiek. Besteak beste, esan beharrik ez da, *luma-jendea* zen (deitu izan den bezala). Austriarren erregerreginen administrazioaren makineria pentsaezina da euskaldunen sekretario eta bulego-langile hauek gabe. Idazteria emanak baitziren, eta batzuk, gainera, literatura lantzen, Joan Perez de Lazarraga bezala. Kronikan interesgarria da aipamentxo bat, ertz batean: *Orlando Furioso*, Ludovico Ariostoren poemaren titulua ageri da.

Senide guztiak ez ziren, ordea, hain finak eta gozoak. Haietako batez ari denean, hau irakurtzen dugu: «Sucedióle matar a un clérigo», horrela, ogitar-teko bat eman bazion bezala edo. Hil bai, baina ez zuen horrek inolako zigorrík izan, zeren Larrean aurkitu baitzuen babes, babes osoa, dorreak eta dorre inguruak pribilegio hori zuelako, hots, legeak eta epaileak ezin sar zitezkeen han.

(4) Eneko Arista diogu, eta ez Eneko (H)Aritz, eta ongi lego ke behin betiko okerra zuzentzea, XVII. mendetik datorriguna. Caro Baroja idatzi zuen bezala, bere *Etnografía histórica de Navarra* liburuan, I, 120-121. orrialdeetan, *arista* edo *aresta* erromantzea da, eta «no aludiría a la fortaleza corporal del rey, comparable a la del roble pirenaico, sino a su ardor en las luchas, inflamable como la arista seca, es decir, la especie de espina o espiga de trigo, *aresta* o *ariesta* también».

(5) Portilla 1978: 602.



Maria Comas Rosen liburuaren azala.

Beste pertsonaia bat interesgarria da. Gure idazlearen izen-deitura berberak zituen: Joan Perez de Lazarraga. Larrintzaren bizi zen, hango jaun. Han errezipitzen zituen menpekoak, eta han aritzen zen epaile, «jauregiaren ondoan dauden itxaurrondoen azpian». Gizon hau erotu zen, eta dirudinez odol-pikoengatik. Eta hain erotu zen, non Gasteiza joaten baitzen, zaldun gisa armatua, eta kalez kale ibiltzen zen garraxika, «Santiago! Santiago!» eta «Calleja! Calleja!». Larrintzaren, bere baratzean, arropa arinagoan seguru aski, urre eta zilar txanpon batzuk erein zituen, hau esanez: «Pues nacía el mijo que era grano tan nuevo, ¿por qué no había de nacer el doblón?». (Jakin, *mijo* hori ‘artoa’ da, garai hartan oraindik Ameriketatik etorri berria; leku askotan landare etorri berri horrek kendu zion zaharrari bere izena, eta hau ge-roztik *artotxikia* deitu izan zen.)

Asko dira hemen amorio eta maitasun istorioak, bai eta ezkontzaz kanpoko umeak ere (eta ez dira gutxi apaizen seme-alabak; behin artzipreste batena ere aipatzen da). Gorrotoa eta ezinikusia ere ez da falta: Oñatiko harakin batez mintzo denean, hau da iruzkina: «Que nunca medre».

Kronika honek hizkuntza aldetikako interes handia eskaintzen du, eta euskalari zenbait jardun dira hori ikertzen. Mitxelenak, *Textos arcaicos vascos* li-

buruan, xehekiro aztertu zuen lelo bat, guztiz garbi ez dagoena (guk gaurko grafian emango dugu):

«Gaitza zenduan leinztarrok, Urruxolako lekaioa,  
Sendo zenduan odolori bihurtu jatzu gatzaioa».

Mitxelenak dioen bezala (6), *odol sendoa* ‘harrokeria’ da; *gatzaio* agian ‘gatztua’ edo ‘mamia’, eta *lekaio* ‘garraxia’. Bainan harriarri bada ere, kopia gehienetan bezalaxe, eskuizkribu honetan *lenizanos* ageri da, ez *leinztarrok* (7). Zer esanik ez, *odolori* horretan, nik uste, artikulu zaharra dugu; gaur *odola* esango genuke. Lelo horren atzean oñatiarren eta leinztarren gatazka odoltsu bat da, garai hartan sarri gertatzen zirenetariko bat, eta leloa gelditu zen jendearen ezpaintedan, gure idazleak dioen bezala.

Testuak beste gauza asko dakartzia, hizkuntzarentzako interesgarriak. Adibidez, gizon baten goitizena *Goldadeyarro* da, eta ondoan azalpena dator: «por respecto de su blanda y amorosa condición». Esango nuke izen horretan *Gold(e)a darraio* behar dugula ikusi, haren lasaitasunaren ispilu.

Euskaltzaindiaren ospakizun honek bere fruitu iraunkorrik emango ahal ditu! Bat oso beharrezkoa da: kronika honen edizio oharreztatua. Horretarako bada gure artean jende aditua. Badakit erraza dela besterik lana eskatzea, baina egingo duenak izango du gure laguntza osoa. Atsegir handiz emango diegu.

## Eranskina

Euskaltzaindiaren batzar agerikoaren ondoan, ekainaren 4an, gutun bat argitaratu nuen *Avui* egunkarian, Maria Comasen berri jakin nahiz. Egun berean, posta elektronikoz, Marta Pessarrodona idazle ezagunak idatzi zidan.

«Benvolgut amic,

Acabo de llegir la seva carta a l'*Avui* i el nom de Maria Comas m'ha cridat poderosament l'atenció. Imagino que és la «senyora Comas», professora (excel·lent) de l'Institut de Maragall de Barcelona, on jo vaig estudiar a partir dels tretze anys, per tant a partir del curs 1954-55. Naturalment, ens impartia les classes en castellà, però parlàvem en català fora de classe, cosa poc corrent per aquells temps. Corria el rumor que ella i el seu marit havien estat represaliats (imagine que per republicans) però poca cosa més sé. Sempre he pensat que em vaig matricular a història –en comptes de filologia hispànica, que era el que feia la gent com jo amb dèries literàries (que he tingut des que vaig començar a llegir)– per culpa d'una amiga més gran que jo, l'Esther Tusquets, alumne dilecta de Vicens Vives, però la seva carta m'ha fet adonar que també hi devia pesar la «senyora

---

(6) Mitxelena 1964: 3.1.3.

(7) Mitxelenak, leku berean, *leinztarroc* suposatu zuen. Bainan testuak *lenizanos* dio garbi.



#### **Argazkian ageri direnak (Jerardo Elortzaren argibidea)**

Oñatiko Institutuko irakasle eta ikasleak Eibarren, txango batean, 1931 edo 1932an. Indalecio Ojangurenek hartutako argazkia. Maria Comas Ros ageri da argazkian: behetik hasita bigarren leroan, ezkerretatik eskuinetara laugarrena.

Goieneko leroan: Teofilo Agirrezabal, oñatiarra, Institutuko bedela; Javier Gereka, oñatiarra; X. X.; X. X.; X. X.; Vicente Ugarte, oñatiarra, gerra ostean Oñatin alkate izan zena; X. X.; Felix Igartua, oñatiarra; Eduardo Korkostegi, oñatiarra; X. X.; Jose Ugarte, oñatiarra; eta Antonio Romero, frantsesekiko irakaslearen semea.

Bigarren leroan zutik: X. X.; Felipe Igartua, oñatiarra, hau ere bedela; X. X.; Maxima Zelaia, oñatiarra, Upaingoa; Carmen Azkunaga, oñatiarra, Gasteizera ezkondu zena; X. X.; X. X.; Genobea Zelaia, oñatiarra, Upaingoa; Ricardo Elorza, oñatiarra; Luis Maiztegi, oñatiarra; Miguel Gereka, oñatiarra, apur bat makurtuta; Santi Ugarte, oñatiarra; Ignacio Enparantza, oñatiarra, gerora Gasteizen Esmaltaciones San Igancio enpresa jarri zuena; eta Rufino Lizarrlade, oñatiarra, txoferra.

Hirugarren leroan jarrita: Maria Luisa Arrue, oñatiarra; Dolores Mugarza, oñatiarra; Jose Maria Alzuru, zarauztarra, Oñatiiko medikua eta fisiologia-irakaslea Institutuan; Maria Comas Ros, Gironako probintziako, Geografia eta Historiako irakaslea; Julio Sánchez, Literatura irakaslea eta zuzendari ere izan zena; Antonio López, Matematikako irakaslea; hurrengo herri-eskoletako maisua, institutuan ere klaseren bat ematen zuena; Begoña Aranburu, arrasatearra; Lola González, eibartarra; eta Pilar Arrue, oñatiarra.

Beheko leroan,urrean jarriak: X. X.; [?] Ibarbia, oñatiarra; Jose Maria Arrieta, oñatiarra, Iruñera ezkondu zena; Ignacio Olaizola, zumaiarra, Bilbon mediku anestesista izan zena; X. X., beste txoferra agian; X. X.; X. X.; X. X.; Juan Arregi, oñatiarra; Jose Luis Otaola, eibartarra; eta Angel Aranburu, oñatiarra, gerra ostean Venezuelala joan zena.

Ikasle ezezagunak, seguru asko, Oñatiilik kanporakoak izango ziren gehienak. Inguruko herrietakoak. Argazkia Javier Gereka zenak utzi zidan. Nati Zelaiarekin ezkondu zen Miguel anaia bezala, Oñatin Gereka markako txokolatea egiten zuen familiakoa zen Javier, eta 1963an antzinako Unibertsitatean berriz Institutua ipini zutenean, Zientzietako irakaslea izan zen hainbat urtetan. Argazkian agertzen diren ia gehienak hilda daude, baina batzuk duela oso gutxi.

Argibiderik gehienak garai hartan Oñatiiko Institutuan ikasle izandako Regino Blaín oñatiarrak samurtu dizkit: aurten 90 urte beteko ditu eta oso ondo oroitzen da sasoi hartako irakasleez, Maria Comas-ez ere bai, jakina. Dena den, hil baino lehenxeago, fotografian ageri diren Javier Gerekak eta Jose Ugartek ere orduko hainbat xehetasun jakinarazi zidaten.

Comas» del meu batxillerat. Vaig fer la carrera amb fàstic perquè el departament d'història que vaig trobar (Vicens Vives ja havia mort) era un mostrari de professors dolents, però amb el temps m'he adonat que, certament, m'agrada la història, com podrà comprovar si dóna una ullada al meu darrer llibre, *Mercè Rodoreda i el seu temps*.

Lamento no donar-li més informació, perquè imagino que aquesta dada del «Instituto Maragall», l'himne del qual començava: «En el campo de las letras, brilla un nombre, Maragall, que es la fe de Cataluña y es orgullo nacional [español, és clar!]...», vostè ja la deu tenir. Tot amb tot, li desitjo sort en les seves investigacions i, si no és molt demanar, quan acabi el seu treball m'agradarà saber-ho i saber com obter nir-lo. Gràcies, amb una salutació cordial,

*Marta Pessarrodona».*

Eta ekainaren 17an beste gutun hau hartu nuen, Elena del Cacho andreak bidalia. Hona non:

Sr. Knörr,

He llegit la seva carta publicada al diari *Avui* del dia 4 d'aquest mes amb el títol «Maria Comas Ros».

Em va cridar de seguida l'atenció perquè vaig tenir la Sra. Comas de professora de Geografia i Història els cinc últims cursos de batxillerat a l'Institut Maragall (sóc de la promoció 1944-1951).



Maria Comas (mahaian eta laukitxoan) Institut Maragalleko irakaslekideekin. 1947. Elena del Cacho andreak guri helarazi argazkia.

La Sra. Comas va ser una magnífica professora que entusiasmava les alumnes amb les seves explicacions, perquè ens feia viure la Història no com les pàgines d'un llibre avorrit sinó que entraves en els fets como una cosa viva, com realment és la Història.

Va ser professora de l'Institut Maragall durant molts anys, i també Cap d'Estudis, potser allà li podrien facilitar detalls de la seva vida. Jo només sé que es va casar amb el catedràtic de Matemàtiques Diego Montañez i que va tenir un fill i una filla. La filla va ser professora de llengua castellana al mateix Institut Maragall, però crec que tant l'un com l'altra van morir joves. En la seva vida privada no va ser molt afortunada. Ignoro si queda algú de la seva família. Tenia una germana que va morir no fa massa temps.

Li envio una fotografia de la festa de final de batxillerat de l'any 1947 (era el curs de la meva germana) on veurà la Sra. Comas junt amb d'altres professors. L'adreça de l'Institut és: IES Joan Maragall – carrer provença, 187 – 08036 Barcelona.

Amb la meva afectuosa salutació, estic a la seva disposició per qualsevol cosa que li pugui interessar.

*Elena del Cacho».*

Elena del Cacho andreak igorri zidan argazkia hemen argitaratzen dugu.

## Bibliografia

- CARO BAROJA, Julio. 1971. *Etnografía histórica de Navarra*. Hiru liburu-ki. Caja de Ahorros de Navarra. Editorial Aranzadi, Iruña.
- COMAS ROS, Maria. 1936. *Juan López de Lazarraga, Secretario de los Reyes Católicos, y el Monasterio de Bidaurreta en la villa de Oñate*. Ediciones Descartes, Bartzelona.
- GUERRA, Juan Carlos. 1924. *Viejos textos del idioma. Los cantares antiguos del euskera*. Donostia.
- MITXELENA, Koldo. 1964. *Textos arcaicos vascos*. Minotauro, Madril. 1964. Bigarren argitaraldia, I. Sarasolaren *Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos* deritzanarekin batera, Donostia 1991 (ASJU-ren eranskinak, 11. zenbakia).
- PORRILLA, Micaela. 1978. *Torres y casas fuertes en Álava*. Bi liburuki. Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria, Gasteiz.
- ZUMALDE, Ignacio. 1957. *Historia de Oñate*. Donostia.

## **JUAN PÉREZ DE LAZARRAGA**

*José Ángel Segura,  
Pte. Junta Administrativa de Larrea*

Egunon guztioi.  
Buenos días para todos.

En primer lugar decir que es un orgullo para el pueblo de Larrea contar con este legado tan antiguo en Euskera de nuestro antepasado Juan Pérez de Lazarraga «El Poeta».

Queremos agradecer a las Instituciones el empeño, la difusión y el reconocimiento cultural de este manuscrito o documento y pedirles que sigan investigando en este campo.

Por último, invitarles a acompañarnos para descubrir una placa conmemorativa en la Iglesia Parroquial de Larrea.